

GRADUA:
INGENIERITZA MEKANIKOKO GRADUA
GRADU AMAIERAKO LANA

***TOLESGAILU HIDRAULIKOA
80 TN-TARAKO***

3 DOKUMENTUA – KALKULUAK

Ikaslea: Ozkorta, Escribano, Josu>

Zuzendaria : Santos, Pera, Juan Antonio

Ikasturtea: 2017-2018

Data: Bilbon, 2018, Otsaila, 1

AURKIBIDEA

3.1. SARRERA	6/251
3.1.1. Hasierako datuak	9/251
3.2. SISTEMA HIDRAULIKOA	11/251
3.2.1. Pistoiaeren eta kirtenaren sekzioen kalkuluak	11/251
3.2.2. Beharrezko emariaren kalkulua	15/251
3.2.3. Bonbaren aukeraketa	23/251
3.2.4. Elektrobalbula	25/251
3.2.5. Emariaren kontrolerako balbula	28/251
3.2.6. Mugatutako presiodun eta segurtasun balbula	29/251
3.2.7. Sekuentzi balbula kontrapresio eta kontrabalantze mugatzailea	30/251
3.2.8. Bero trukagailua	31/251
3.2.9. Balbula termoestatikoa	33/251
3.2.10. Olioia	34/251
3.2.11. Olio biltegia	37/251
3.2.12. Motorraren aukeraketa	39/251
3.2.13. Itzulera hodirako olio iragazkia (filtroa)	42/251
3.2.14. Presio hodiko lerroan kokatzeko iragazkia (filtroa)	43/251
3.2.15. Aspirazio hodiko olio iragazkia (filtroa)	44/251
3.2.16. Nibel eta tenperatura adierazle optikoa	45/251
3.2.17. Maila neurtzeko zunda	46/251
3.2.18. Beteta dagoela adierazten duen tapoia eta aire iragazkia	47/251
3.2.19. Husteko giltza	48/251
3.2.20. Errakorrak.	49/251
3.2.21. Instalazio oleohidraulikorako hodien aukeraketa	51/251
3.2.21.1. Zilindro eta distribuzio blokearen arteko hodiak	51/251
3.2.21.2. Deposituaeren eta bonbaren arteko hodia	59/251
3.2.21.3. Bonba eta distribuzio blokearen arteko hodia	61/251
3.2.22. Aurre-betetze balbula	62/251


3.3. KALKULU MEKANIKOAK.	63/251
3.3.1. Zilindro oleohidraulikoaren kalkuluak	63/251
3.3.1.1. Atorraren lodiera	64/251
3.3.1.2. Kirtenaren kalkulua	78/251
3.3.1.3. Pistoiaaren kalkulua	99/251
3.3.1.4. Kirtenaren taparen kalkulua.	103/251
3.3.1.5. Gidarien zabaleraren kalkulua.	108/251
3.3.1.6. Zilindroaren itxitura taparen kalkulua	119/251
3.3.1.7. Ardatzaren zorroaren kalkulua	121/251
3.3.1.8. Ardatzaren zorroaren itxitura taparen kalkulua	124/251
3.3.1.9. Barneko topearen kalkulua.	127/251
3.3.1.10. Puntzoi eroalearen gidarien kalkulua	131/251
3.3.2 Puntzoi eroalearen kalkulua	133/251
3.3.3. Sinkronizazio sistemaren kalkulua	147/251
3.3.3.1. Ziri ardatzaren kalkulua	148/251
3.3.3.2. Puntzoi eroaleko bihurtura ardatzaren arrabolarentzako berma puntuen kalkulua..	149/251
3.3.3.3. Bermaketa soldaduraren kalkulua	152/251
3.3.3.4. Bihurdura arrabolaren kalkulua	154/251
3.3.3.5. Bihurdura arrabolaren besoen kalkulua	157/251
3.3.3.6. Bihurdura arrabola eta besoen arteko soldadura	159/251
3.3.4 Transmisio sistema	161/251
3.3.4.1. Torloju amaigabearen eta koroaren kalkulua	161/251
3.3.4.2. Torloju amaigabearen dimentsioak	164/251
3.3.4.3. Koroaren neurriak	165/251
3.3.4.4. Koroa eta torloju amaigabearen arteko indarrak.	166/251
3.3.4.5. Hortzen moduluaren konprobaketa	169/251
3.3.4.6. Motor erreduktorearen eta akoplamentuaren aukeraketa	170/251
3.3.4.7. Transmisio ardatzaren kalkulua	176/251
3.3.4.8. Torloju amaigabeko errodamentuen aukeraketa.	178/251
3.3.4.9. Ardatz nagusiaren kalkulua.	186/251
3.3.4.10. Ardatz nagusiko errodamentuen aukeraketa.	193/251

3.3.4.11. Torloju amaigabearen eta transmisio ardatzaren lotura zorroaren kalkulua	203/251
3.3.4.12. Txabeten kalkulua	205/251
3.3.5. Bastidorearen kalkulua	215/251
3.3.5.1. Faldoiaren kalkulua	215/251
3.3.5.2. Hegoen kalkulua	220/251
3.3.5.3. Zilindro eta bastidorearen arteko lotura	223/251
3.3.5.4. Olio gordailuen bermatzea habeen kalkulua	227/251
3.4. ERANSKINAK	229/251
3.4.1. Tolesgailuaren indarra	229/251
3.4.2. Olio emariak	230/251
3.4.3. Diseinu koefizienteak	231/251
3.4.4. Engranajeak	232/251
3.4.5. Torloju hexagonalak.	233/251
3.4.6. Torloju zilindrikoak	233/251
3.4.7. Azkoinak	234/251
3.4.8. Zirrindola	235/251
3.4.9. Ukondoa	236/251
3.4.10. Motore printzipala	237/251
3.4.11. Motore erreduktorea	238/251
3.4.12. Olio biltegia	239/251
3.4.13. Bonba	240/251
3.4.14. Hodiak	241/251
3.4.15. Akoplamendua.	244/251
3.4.16. Segurtasun eraztuna	245/251
3.4.17. Materialak	246/251

3. DOKUMENTUA: KALKULUAK

3.1. SARRERA


Hemendik aurrerako kalkulu, balorazio, interpretazio eta adierazpen guztiak, 80 Tn-ko tolesgailu hidraulikoaren proiektua burutzeko beharrezkoak direnak izango dira. Hasierako datu batzuetatik abiatuko gara makina honen mekanismoak diseinatzeko eta dimentsionatzeko orduan, eta huez baliatuz beharrezkoak diren kalkulu mekaniko eta hidraulikoak egingo dira. Kalkuluekin buru belarri sartu aurrean, makina honen atalak eta funtzionamendua modu errazago eta argiago batetan ulertzeko asmotan, jarraian gailuaren eskematxo bat aurkezten da, bera atal ezberdinak adieraziz.



3.1.1 Irudia

Tolesgailu hidraulikoen egitura aztertzean, oinarria zilindro oleohidraulikoa direla baieztatzen da, hauen kopurua aldatuz doa beharren arabera, gure kasuan bi izango dira. Hori dela eta, lortzen den indar totala, bi indar puntualetan banatuko da.

Bestalde, 80 Tn-ko tolesgailu hidrauliko honetan mahaia edonolako mugimendu kulunkari barik mugimendu bertikalean linealki higitu dadin, bi zilindroak lerrokatuta egon behar dira. Horregatik, bi zilindroen kirtanak era zuzenean mugitu daitezak, bi topek, lau gidarik eta tortsio ardatz batek eratutako gidatze sistema bat jarriko dugu. Topeak, zilindroen ardatzen muga funtzioa lana egingo dute. Gidariek eta tortsio ardatzak aldiz, puntzoi eroalea mahai finkoarekiko mugimendu bertikal eta lineal batetan mugitu dadin bermatuko du. Gainera, gaur egun, teknologiaren aurrerapen azkarrak medio makinak erabateko zehaztasunez lan egin dezaten merkatuan oso zehatzak diren neurgailu elektronikoak daude, Encoder izenekoak. Hauen laguntzaz puntzoiaren posizioa momentu oro kontrolatu daiteke. Hona hemen toleste prozesu baten pausu ezberdinak:



3.1.2 Irudia

1.- Lehen pausu gisa puntzoi eroalea hurbilpen abiaduraz (abiadura azkarra) jaitsiko da, txapatik gertu definitutako puntu batetaraino (zenbakizko kontroladore bati esker).

2.- Ondoren, makinaren abiadurak aldaketa bat jasaten du, hots, aurrerapen abiadura utzi eta lan abiaduraz desplazatzen hasiko da, abiadura motelduz. Puntzoiak txapan deformazio iraunkorrak eragingo ditu (zilindro oleohidraulikoen indarraren eraginez) eta kasu honetan ere puntu bat zehaztuta izango da muga modura.

3.- Azken pausu bezala, hasierako posizioa berreskuratzeko, puntzoi eroaleak gora egingo du atzerapen abiadurarekin (berriz ere abiadura azkarra errekueratuz), goiko aldean zehaztutako puntu batetaraino.

Bestalde, makina bere osotasunean aztertzean sistema oleohidraulikoa, gida sistema eta sistema hidraulikoa jasateko gaitasuna duen estruktura bat diseinatuko beharko da. Egitura hau bastidore, faldoi eta bi hegoz osatuta egongo dago.

Ondorengo puntuetan, dokumentu honen banaketa azalduko dugu, jorratuko diren atal ezberdinak azalduz:

Lehendabizi, sistema hidraulikoa osatzen duten elementu guztien diseinu eta hautaketarako beharrezko kalkuluak burutuko dira. Zilindro oleohidraulikoaren diseinutik abiatuz, tolesgailuak behar izango dituen bonba, motore, instalazio hidrauliko eta hauen beharrezko emari desberdinen kalkuluak egingo dira.

Hurrengo pausu bezala zilindroen osagaien diseinu eta kalkuluak burutzea izango da hasieran lortutako emaitzei jaramon eginez. Puntzoi eroalea diseinatu ostean, sistemaren sinkronizazio sistema definitzen da. Honekin batera bihurtura ardatza eta gidariak zehaztuz. Jarraian bastidorearen kalkuluetan, berau osatzen duten elementuek eraginak aztertuko dira egituraren bermea egiaztatuz.


Azkenik barne topeak kalkulatzearekin batera, torloju amaigabearen eta koroaren arteko transmisioa definituko dugu. Transmisio honetarako beharrezko motorea eta akoplamenduak hautatuko dira, baita sistemak izango dituen errodamendu eta txabetero egokien aukeraketa.

Kalkuluak burutzeko hurrengo prozedura hau jarraitu da: lehenbizi, hasierako datuak aurkezten dira araudietako erreferentziak kontutan izanik (eta gure xedea den txaparen neurri eta datuak kontutan izanik); ondoren, kalkuluak edo hautaketak burutzen dira. Azkenik gure xedea den toleste prozesuaren balioak frogatzen dira. Emaitzak baliogarriak badira kalkuluak egokiak izango dira, horrela ez bada, prozesu oro berregin beharko da elementu ororen segurtasuna bermatuta izan artean.

3.1.1. Hasierako datuak

Tolesgailu hidraulikoa diseinatzeko, lehenbizi hainbat ezaugarri aurredefinitu behar dira, zeintzuk, lan indarrarekin erlazionatuta egongo diren. Ondorioz, hasierako datuen aukeraketak tolesgailuaren egitura eta zilindro oleohidraulikoaren ezaugarriak baldintzatuko ditu.

Kasu honetan, abiapuntu modura toleste prozesuan tolestuko den txaparen neurriak eta lortu behar den piezaren neurriak aztertzea izango da. Pieza hurrengoa izango da eta tolestu beharreko atalak hegoak (2) eta oinarria (1) izango dira:

**3.1.3. Irudia**

Toleste makina bat kalkulatzeko orduan, xaflaren neurriak eta makinaren indarra izango dira kontutan hartzeko daturik garrantzitsuenak, kalkuluetarako balore maximoak hartuko ditugu kontutan:

A) Xaflaren ezaugarriak:

1. Xaflaren luzera maximoa: 1200 [mm]
2. Xaflaren lodiera maximoa: 8 [mm]
3. Materialaren erresistentzia:

$\sigma_{\text{altzairu-herdoilgaitza}} = 65-75 \text{ [kg/mm}^2\text{]}$ Altzairu herdoilgaitza gutxienez, %10 cromo eta %0,08 carbono baino gutxiago dituen altzairua.

B) Tolesgailuaren ezaugarriak:

EZAUGARRIAK		
Tolesgailuaren indarra [Tn]		80
Mahaiaren luzera [mm]		3550
Abiadurak	Aurrerapen abiadura [mm/seg]	100
	Laneko abiadura [mm/seg]	8
	Atzerapen abiadura [mm/seg]	68

1.1.taula

Tolesgailuaren aukeraketa egiterako orduan “toleste teorian” (teoria de plegado) oinarritu gara eta tolesgailuaren hasierako ezaugarri bezala, oinarritzko ezaugarriak DURMA etxeko HAP serieko 3590 tolesgailua hartuko dugu kontutan.

3.2. SISTEMA HIDRAULIKOA

3.2.1. Pistoiaaren eta kirtenaren sekzioen kalkuluak

80 Tn-ko tolesgailu hidrauliko bat diseinatzerako orduan ezer baino lehen makinari indarra eragingo dioten bi zilindro oleohidraulikoak diseinatuko dira. Bakoitzak 40 Tn-tako indarra gauzatu du.



3.2.1 Irudia

Zilindro oleohidrauliko batek burutzen duen indarra, sisteman dabilen olioaren presioak eta honek eragiten duen azaleraren proportzionala da. Azalera hori, zilindroaren kirtenaren mugimenduarekiko perpendikularra da, hots pistoiaren azalera. Pistoia atorraren barnetik ibiliko da, beraz, atorraren barne diametroa eta pistoiarena ia berdinak izango dira, tolerantzia batekin (ezin dira berdinak izan marruskaduraren ondorioz). Beraz, 40 tn-ko indarra gauzatzeko beharrezkoa den pistoiaren diametroa aukeratzeko da. Carnicer Royo, E-ren “Oleohidráulica. Conceptos básicos” liburuan agertzen diren adierazpeneta ekuazioez baliatuko gara sistemak behar duen laneko presio maximoa kalkulatzeko.

Lehenik eta behin beraz, zilindro bakoitzaren azalera osoa kalkulatu da:

$$A_{O1} = \frac{\pi \times d_1^2}{4} \text{ (cm}^2\text{)}$$

Non:

A_{O1} ; Zilindro bakoitzaren azalera osoa [cm²].

d_1 ; Pistoiaren diametroa [cm].

Diámetros de vástagos de pistón¹⁾

Medidas en milímetros

	4	5	6	8	10	12	14	16	18	20	22	25
MM	28	32	36	40	45	50	56	63	70	80	90	100
	110	125	140	160	180	200	220	250	280	320	360	

1) Una extensión hacia mayores valores de esta gama puede desarrollarse, si fuese necesario, usando la serie R20 de números normales.

3.2.1 Taula

Pistoiaren diametroa 160 mm-takoa hartzea erabaki da, UNE-101360=1986 (transmisio hidrauliko eta pneumatikoak) araudiko taulaz baliatuz, horrela ez dugu arazorik izango jarri behar diren juntekin eta aurrerago piezak aldatu behar izango balira hauen neurriekin, neurriak "standar"-ak baitira. Ondorioz:

$$A_{O1} = \frac{\pi \times 16^2}{4} = 201,062 \text{ cm}^2$$

Bi zilindroek izango duten azalera osoa beraz, $A_O = 2 \times A_{O1} = 402,12 \text{ cm}^2$

Indarra, presioa eta azalera erlazionatzen dituen formula erabiliko dugu lan presioa lortzeko (neumatika eta hidraulikako kontzeptu orokorretako ekuazioa):

$$F = p \times A$$

Non:

F; Laneko indarra = 80 Tn = 784800 N (Newton)

p; Laneko presio maximoa [Pa]

A_O; Zilindro bien azalera osoa [m²]

Ekuazioan balioak ordezkatzuz, laneko presio maximoa lortuko dugu:

$$p = \frac{F}{A_0} = \frac{784800}{402,12 \text{ cm}^2 \times \frac{1 \text{ m}^2}{100^2 \text{ cm}^2}} = 19,5164 \times 10^6 \text{ Pa} = 195,2 \text{ bar}$$

Kalkulu honetan marruskadura indarra ez denez kontutan izan eta gainera zilindroen errendimendua %100 ezin denez izan, toleste presioa 200 bar-ekoa hartzea erabaki da segurtasun neurri bezala.

Itzulera mugimendurako beharrezkoa den zilindroaren sekzio anularra kalkulatzeko kirtenaren diametroa, d_2 , jakitea beharrezkoa da. Horretarako, Rifa Molist, J-ren "Cilindros Oleohidráulicos. 2-Materiales" liburuan gomendatzen den bezala, zilindroaren azalera osoaren eta azalera anularren arteko erlazioa ezin dela 10 baino handiagoa izan hartuko dugu irizpide nagusi bezala.

Kirtenaren diametroa 140 mm-koa dela suposatuko da, horrela zilindro bakoitzaren sekzio anularra lortuz:

$$A_{a1} = A_{o1} - \frac{\pi \times d_2^2}{4}$$

Non:

A_{a1} ; Zilindro bakoitzaren sekzio anularra [cm^2]

d_2 ; Kirtenaren diametroa (sekzio anularren barne diametroa) [cm]

Aurrez kalkulatuta $d_2 = 140 \text{ mm}$ eta $A_{o1} = 201,062 \text{ cm}^2$ ditugunez, balioak ordezkatzuz:

$$A_{a1} = 201,062 - \frac{\pi \times 14^2}{4} = 47,124 \text{ cm}^2$$

Bi zilindroen azalera anularra batzen badugu:

$$A_a = 2 \times A_{a1} = 94,248 \text{ cm}^2$$

Zilindroaren azalera osoaren eta azalera anularraren arteko erlazioaren konprobaketa (Rifa Molist, J. liburutik hartutakoa):

$$R = \frac{A_o}{A_a}$$

Aurrez kalkulatuta $A_o = 402,12 \text{ cm}^2$ eta $A_a = 94,248 \text{ cm}^2$:

$$R = \frac{402,12}{94,25} = 4,27 \leq 10$$

*Beraz kirtenaren diametroa baliogarria izango da.

Azkenik, lortutako emaitzak hurrengo taulan laburbildu ditugu:

F_{TOTALA} = 80 Tn
p = 200 bar
d₁ = 160 mm
A_o = 402,12 cm²
d₂ = 140 mm
A_a = 94,248 cm²
R = 4,27

3.2.1 Taula

3.2.2. Beharrezko emariaren kalkulua

Tolesgailuaren indarrak eta abiadurak egokiak izan daitezcan, zilindro oleohidraulikoaren eta motorearen emariak finkatu beharko dira. Zirkuitu oleohidraulikoan beharrezko emariak zehazteko tolesgailuaren funtzionamendu abiadurak finkatu beharko ditugu lehenbizi. Hasierako baldintzetan zehaztu bezala, hurbilketa eta itzulera abiadura azkarrak izango dira prozesua ahalik eta arinena izan dadin, hala ere lan egiterako orduan abiadura motela erabili behar da tolestu nahi diren xafletan akatsik ez agertzeko, edo ahalik eta gutxien ager daitezcan. Tolesketa egokiak burutuz.

Abiadura hauek izango dira tolesgailuan aurretik definitu ditugunak:

- Hurbilketa abiadura: 100 mm/s
- Laneko abiadura: 8 mm/s
- Itzulera abiadura: 68 mm/s

Diseinuko datuak:

- Sekzio osoa: $A_o = 402,12 \text{ cm}^2$
- Zilindroaren ibiltartea: $L = 135 \text{ mm}$
- Sekzio anularra: $A_a = 94,25 \text{ cm}^2$


Abiadura eta bolumen aldaketak direla eta emari ezberdinak izango ditugu. Lehenik tolesketa lanerako beharrezkoa den emaria (8 mm/s-ko abiadura lortzeko behar den emaria) kalkulatu da hau baita prozesuko lanik garrantzitsuena, eta ondoren gainontzeko emariak kalkulatu dira. Horretarako Carnicer Royo, E-ren "Oleohidráulica. Conceptos básicos" liburuan agertzen diren formulak erabiliko dira.

Zilindroaren ibiltartea lan prozesuarekin erlazionatuta dago, hurbilpen tartea 100 mm, lan tartea 35 mm eta itzulera tartea 135 mm izanik.

Tolesketa prozesurako emaria:

Bonbak garraiatzen duen olioaren honako prozesua jarraitzen du, jakin aurretik ganbarak olio beteta daudela. Lehenbizi zilindro oleohidraulikoaren goiko ganbaratik sartzen da atorrak horretarako duen B zulotik, ondoren enboloa bertikalki desplazatuz $v=8 \text{ mm/s}$ -ko abiaduraz. Mugimendu honen eraginez, hots, enboloaren aurrerapen desplazamenduaren ondorioz, beheko ganbaran dagoen olio biltegirantz garraiatzen da atorrak duen C zulotik. Laneko prozesuan bete beharreko bolumena, kontutan izanda lan tartearen 35 mm -tako delako:

$$V_{\text{tolesketa}} = A_O \times L_{\text{tolesketa}} \quad (\text{cm}^3)$$



Non:

3.2.2 Irudia

$V_{\text{tolesketa}}$: Tolesketa laneko prozesuan zilindroan bete beharreko bolumena [cm^3]

A_o : Sekzio osoa [cm^2]

$L_{\text{tolesketa}}$: Tolesketa laneko prozesuan zilindroak egin beharreko ibiltartea [cm]

$$V_{\text{tolesketa}} = 402,12 \times 3,5 = 1407,42 \text{ cm}^3$$

Jarraian lanerako beharrezkoa den emaria kalkulatu da:

8 mm _____ 1 seg

35mm _____ X seg X= 4,375 seg

Toleste prozesua, makinak tolesgailuak burutzen duen eragiketarik geldoena da eta gure kasuan $4,375 \text{ s}$ iraungo du.

Lanerako beharrezkoa emaria:

$$Q_{tolesketa} = \frac{V_{tolesketa}}{t_{tolesketa}} = \frac{1407,43}{4,375} = 321,7 \text{ cm}^3/s = 19301,95 \text{ cm}^3/\text{min} = 19,3012 \text{ l}/\text{min}$$

Kalkuluak sinplifikatzeko $Q_{tolesketa}=19,3 \text{ l}/\text{min}$ -ko emaria hartuko da sarrerako emari bezala. Baina C hoditik irtengo den emaria kalkulatzeko, bi emarien arteko erlazioa ondorengo adierazpenarekin definitzen da:

$$Q_{tolesketa} = Q_{irteera} \cdot (G.E.)$$

Non: **Q_{tolesketa}**: Sarrerako emaria lan egoeran
Q_{irteera}: Irteerako emaria lan egoeran.
G.E.: Gainazalen arteko erlazioa.

Gainazalen arteko erlazioa (G.E.), hurrengo formula matematikoaren bitartez zehazten da:

$$G.E. = \frac{S_1}{S_2}$$

Non: **S₁**: Pistoiairen gainazala.

S₂: Pistoiairen gainazala, kirtenaren azalera kontutan hartuz.

Gainazal arteko erlazioa zehazteko azalera desberdinen balioak kalkulatu dira:

$$S_1 = 201,062(\text{cm}^2)$$

$$S_2 = 47,124(\text{cm}^2)$$

Beraz gainazalen balioak ezagunak izanik, gainazalen arteko erlazioa lortu daiteke:

$$G.E. = \frac{S_1}{S_2} = \frac{201,062(\text{cm}^2)}{47,124(\text{cm}^2)} = 4,266[-]$$


Dagoeneko, aldagai guztiak lortu direlarik, hona hemen irteerako emaria:

$$Q_{tolesketa} = Q_{irteera} \cdot (G.E.) \Rightarrow Q_{irteera} = \frac{Q_{tolesketa}}{(G.E.)} = \frac{19,3(\text{l}/\text{min})}{4,266} = 4,523(\text{l}/\text{min})$$

Hurbilketa prozesurako emaria:

Aurreko prozedura berbera jarraituz hurbilketarako emaria kalkulatuko dugu. Lehen bezala olio, zilindro oleohidraulikoaren goiko ganbaran barneratzen da estalkiak horretarako duen B zulotik, honela enboloa bertikalki desplazatuz $v = 100 \text{ mm/s}$ -ko abiaduraz. Mugimendu honen eraginez, enboloaren aurrerapen desplazamenduaren ondorioz, beheko ganbaran dagoen olio biltegirantz garraiatzen da atorrak duen C zulotik. Hurbilketa prozesuan bete beharreko bolumena, jakinda hurbilketa tartea 100 mm-takoa dela:

$$V_{\text{hurbilketa}} = A_O \times L_{\text{hurbilketa}} (\text{cm}^3)$$



3.2.3 Irudia

Non:

$V_{\text{hurbilketa}}$: Hurbilketa prozesuan zilindroan bete beharreko bolumena [cm^3]

A_O : Sekzio osoa [cm^2].

$L_{\text{hurbilketa}}$: Hurbilketa prozesuan zilindroak egin beharreko ibiltartea [cm]

$$V_{\text{hurbilketa}} = 402,12 \times 10 = 4021,2 \text{cm}^3$$

Jarraian hurbilketa prozesurako beharrezkoa den emaria kalkulatuko da, jakinda hurbilpen abiadura 100 mm/s-koa dela:

$$100\text{mm} \text{_____} 1 \text{ seg}$$

$$100\text{mm} \text{_____} X \text{ seg} \qquad X = 1 \text{ seg}$$

Lehen aipatu bezala hurbilketa prozesua, tolesketa prozesua baino arinagoa izan behar da ekoizpen denbora murrizteko. Gure kasuan 1 seg iraungo du.

Hurbilketa prozesuko emaria:

$$Q_{hurbilketa} = \frac{V_{hurbilketa}}{t_{hurbilketa}} = \frac{4021,2}{1} = 4021,2 \text{ cm}^3/\text{s} = 241272 \text{ cm}^3/\text{min} = 241,273 \text{ l}/\text{min}$$

Kalkuluak sinplifikatzeko $Q = 241,273 \text{ l}/\text{min} = 4021,2 \text{ cm}^3/\text{s}$ -ko emaria hartuko da.


Prozesu honetan tolesketa prozesuan baino emari handiagoa behar denez, bonbak eman ezin duen emaria lortzeko, gainkargaturiko balbula erabiliko da. Hau grabitate bidezko jaitsiera bezala izendatzen da, balbula honek depositutik bidaliko dio beharrezko emaria zilindroari.

Itzulera prozesurako emaria:

Azken emaria kalkulatzeko aurreko bi kasuetan bezala egingo dugu. Oraingotan aurrekoetan ez bezala olio a zilindro oleohidraulikoaren beheko ganbaran barneratzen da estalkiak horretarako duen C zulutik, honela enboloa bertikalki desplazatuz $v = 68 \text{ mm}/\text{s}$ -ko abiaduraz. Mugimendu honen eraginez, hots, enboloaren atzerapen desplazamenduaren ondorioz, goiko ganbaran dagoen olio atorrarentzat garraiatzen da atorrak duen B zulutik.

Zilindroa efektu bikoitzekoa denez, kalkuluetan erabili beharko den azalera, sekzio anularra, A_a izan beharko da. Beraz, itzulera prozesuan bete beharreko bolumena, jakinik itzulera tartea 135 mm-takoa dela:

$$V_{itzulera} = A_a \times L_{itzulera} (\text{cm}^3)$$



3.2.4 Irudia

Non:

Vitzulera: Itzulera prozesuan zilindroan bete beharreko bolumena [cm^3]

Aa: Sekzio anularra [cm^2]

Litzulera: Itzulera prozesuan zilindroak egin beharreko ibiltartea. [cm]

$$V_{itzulera} = 95,5 \times 13,5 = 1289,25 \text{ cm}^3$$

Itzulera prozesurako beharrezkoa den emariaren kalkulua jakinda itzulera abiadura 68 mm/s-koa dela:

$$\begin{array}{l} 68 \text{ mm} \underline{\hspace{10em}} 1 \text{ s} \\ 135 \text{ mm} \underline{\hspace{10em}} x \text{ s} \end{array} \quad x = 1,9826 \text{ s}$$

Lehen aipatu bezala itzulera prozesua, tolesketa prozesua baino arinagoa izan behar da ekoizpen denbora murrizteko. Kasu honetan 1,9826 s iraungo ditu.

Itzulera prozesurako B zulotik irtengo den emaria:

$$Q_{itzulera} = \frac{V_{itzulera}}{t_{itzulera}} = \frac{1289,25}{1,9826} = 649,4 \text{ cm}^3/\text{s} = 38964 \text{ cm}^3/\text{min} = 38,964 \text{ l}/\text{min}$$

Kalkuluak sinplifikatzeko $Q = 39 \text{ l}/\text{min} = 649,4 \text{ cm}^3/\text{s}$ -ko emaria hartuko da.

Egoera honetan, C zulotik olio sartuko da, bere balioa aurretik lortutako B zuloko emari maximoa izango da. Honi esker, olioak pistoiaren beheko gainazalean bultzada indarra sortzen du, eta era berean, honen eraginez beste kamarako olio B zulotik irtengo da bera bakarrik.

$$Q_c = Q_{tolesketa} = 325 \left[\frac{\text{cm}^3}{\text{s}} \right] = 19,3 \left[\text{l}/\text{min} \right]$$

Prozesu honetan tolesketa prozesuan baino emari handiagoa behar denez eta bonbak eman ezin duen emaria lortzeko, hurbilketa prozesuan behar den bezala emarirako gailurik balbula erabiliko da.

- **Atorraren irteera/sarrera zuloen dimentsionamendua:**

Lehendabizi, atorraren zuloen dimentsioak kalkulatzeko hasi aurretik, olioaren abiadura zenbatekoa izango den zehaztu behar da, hurrengo taulari kasu eginez:

Hodi mota	Presio tartea	Fluxuaren abiadura
Aspirazio hodia		1,0 m/s
Itzulera hodia		3,0 m/s
Presiopeko hodia	0 – 25 bar	3,0 m/s
	25 – 50 bar	4,0 m/s
	50 – 100 bar	4,5 m/s
	100 – 150 bar	5,0 m/s
	150 – 210 bar	5,5 m/s
	210 – 315 bar	6,0 m/s

3.2.2 Taula

Gure instalazioko presioa 200 [bar]-takoa denez, gure jariakinaren abiadura 5,5 [m/s]-takoa izango da. Behin, jariakinaren abiadura definituta dugularik sarrera eta irteerako zuloen dimentsionamendua kalkula ditzazkegu, hurrengo ekuazioari so eginez:

$$Q_{\max} = v_{olio} \cdot A = v_{olio} \frac{\pi \cdot d_{zulo}^2}{4}$$

Non:

Q_{max}; Zulotik igarotzen den emari maximoa.

v_{olioa}; Jariakinaren, hots, olioaren abiadura maximoa.

d_{zuloa}; Zuloaren diametro maximoa.

Goiko ekuaziotik zuloaren diametroaren aldagaia (*d_{zuloa}*) bakanduko dugu, bere kalkulua baita gure xedea. Adierazpena honela geratzen delarik:

$$Q_{\max} = v_{olio} \cdot A = v_{olio} \frac{\pi \cdot d_{zulo}^2}{4} \Rightarrow d_{zulo} = \sqrt{\frac{4 \cdot Q_{\max} \left(\frac{cm^3}{s}\right)}{v_{olio} \left(\frac{cm}{s}\right) \cdot \pi}}$$

Nola beharrezko datu eta parametro guztiak ezagunak direnez, estalkiko eta atorreko zuloen balioak kalkulatu daitezke. Aurreko ekuazioan datuak ordezkaturaz honela geratzen zaizkigu zulo bakoitzentzako:

- Atorraren B zuloaren diametroa:

$$d_{zulo} = \sqrt{\frac{4 \cdot Q_{\max}}{v_{olio} \cdot \pi}} = \sqrt{\frac{4 \cdot 325(\text{cm}^3/\text{s})}{550(\text{cm}/\text{s}) \cdot \pi}} = 0,8674\text{cm}$$

- Atorraren C zuloaren diametroa:

$$d_{zulo} = \sqrt{\frac{4 \cdot Q_{\max}}{v_{olio} \cdot \pi}} = \sqrt{\frac{4 \cdot 4025(\text{cm}^3/\text{s})}{550(\text{cm}/\text{s}) \cdot \pi}} = 3,0525\text{cm}$$


Goiko ekuazioen bidez lorturiko diametroak emaria garraiatzeko beharrezkoak diren diametro minimoak dira. Horregatik, katalogotik orain lorturiko diametroak baino zerbait handiagoak diren dimentsioak hartuko dira. Hona hemen:

- Atorreko B zuloaren diametroa: $d = 0,8675[\text{cm}] = 0,87 [\text{cm}] = 8,7 [\text{mm}]$
- Atorreko C zuloaren diametroa: $d = 3,0525[\text{cm}] = 3,06 [\text{cm}] = 30,6 [\text{mm}]$

3.2.3. Bonbaren aukeraketa

Behin tolesketa lan prozesurako beharrezkoak diren emaria $Q = 19,3 \text{ l/min}$ eta batez ere presioa jakinda, $p = 200\text{bar}$, bonbaren aukeraketa burutu dezakegu. Bestalde laneko beste eragiketetan, hurbilketa eta atzerapenean, beharko diren emariak, serbobalbula baten bidez eta elementu mugikorren pisuen laguntzaz (grabitate indarraren eraginez) lortuko dira lehen aipatu bezala.

Bomba aukeratzeko orduan, makinaren segurtasunagatik eta lortu beharreko indarrarekin arazorik ez izateko zilindroak lan egiteko behar duen presioa baino zerbait handiagoa den presioa ematen duena aukeratu dugu. Presio handiagoa hartzearen xedea instalazioan zehar karga galerak daudela da, bai hodiedako marruskadura indarragatik zein balbuletako igarobideengatik (ukondoak, estutzeak,..). Karga galera hauek oso txikiak izango direnez, mesprezagarriak ere izan daitezke.



3.2.5 Irudia


Pistoi axialdun bonbak fabrikatzen dituzten etxe ezberdinen katalogoak gainbegiratu ostean VICKERS etxeko PVB10-()-MRDXN20-C-H-C-G-()-10-S.30 pistoi axialdun bomba modeloa aukeratu dugu. Bomba honek 31,65 l/min-ko emari aldakorra ematen du 210 bar-eko presioan 1500 bira/min-ko abiadurarekin.

Pressure and Speed Limits

Basic model designation	Geometric displacement, cm ³ /r (in ³ /r)	Maximum shaft speed (r/min)			Maximum outlet pressure, bar (psi)		
		Anti-wear hydraulic oil	Water-in-oil emulsion (40%/60%)	Water-glycol	Anti-wear hydraulic oil	Water glycol	Water-in-oil emulsion (40%/60%)
PFB5	10,55 (0.64)	3600			210 (3000)		
PFB10	21,10 (1.29)	3200	1800	1800	210 (3000)	175 (2500)	175 (2500)
PFB20	42,80 (2.61)	2400			175(2500)		
PVB5	10,55 (0.64)				210 (3000)	140 (2000)	140 (2000)
PVB6	13,81 (0.84)				140 (2000)	100 (1500)	100 (1500)
PVB10	21,10 (1.29)				210 (3000)	140 (2000)	140 (2000)
PVB15	33,00 (2.01)	1800	1800	1800	140 (2000)	100 (1500)	100 (1500)
PVB20	42,80 (2.61)				210 (3000)	140 (2000)	140 (2000)
PVB29	61,60 (3.76)				140 (2000)	100 (1500)	100 (1500)
PVB45	94,50 (5.76)				210 (3000)	140 (2000)	140 (2000)
PVB90	197,50 (12.0)	1800	1200	1200	210 (3000)	140 (2000)	140 (2000)

3.2.3 Taula

Hurrengo pausua, bonba martxan jartzeko behar den potentzia elektrikoa kalkulatzea da, motore elektrikoa aukeratzeko. Honetarako Vickers bertan katalogoan daukagun taulaz baliatuko gara, baita Ecenarro Ortiz de Zárate, M-ren “Componentes y aplicaciones oleohidráulicos” liburuan agertzen diren adierazpenak erabiliko ditugu:



3.2.6 Irudia

Hurrengo ekuazioa izango da erabiliko duguna:

$$P_{ponpa} = \frac{Q \times p}{612 \times \eta_T}$$

Non;

P_{ponpa}: Bonba martxan jartzeko beharrezko potentzia [Kw]

Q: Bonbak ematen duen emaria [l/s]

p: Bonbaren laneko presioa. [bar]

η_T: Bonbaren errendimendu totala.

Errendimendu totala goiko taularen bidez lortzen dugu: $\eta_T = 0,82$

$$P_{ponpa} = \frac{31,65 \times 210}{612 \times 0,82} = 13,244KW = 18,012CV$$

Gutxi gorabehera fabrikatzaileak erreztutako taulan bertan lortu dugun potentzia berbera atera zaigu. Komenigarria izaten da bi iturri ezberdinen bidez kalkulatzeari. Horrela ondo egiaztatuta geratzen baita.

Tolesgailuan bonba non kokatuta dagoen jakiteko ikusi gailuaren plano orokorra.


3.2.4. Elektrobalbula

Elektrobalbula olioaren norabidea erregulatzeko balio duen elementua da, honen mugimenduak elektroiman batzuei esker gauzatzen dira.

Merkatuan dauden enpresa desberdinen katalogoak aztertu ondoren, azkenik, VICKERS enpresaren katalogoa aukeratu da, motorearen berbera beti izango baitute elkarrekin lan-egiteko erraztasun gehiago. Elektrobalbula aukeratzeko zenbait parametro aintzat hartu behar dira, emari maximoa (3.2.2. Beharrezko emariak atalean kalkulatu), laneko presio maximoa eta pistoien konfigurazioa.

Aukeraturiko elektrobalbula ondoko ezaugarriak bete beharko ditu, sistema hidrauliko honetan baliagarria izan dadin:

- Emari maximoa: $Q_{\max} = Q_{zil} \cdot 2 = 19,3(l/\min) \cdot 2 = 38,6(l/\min)$
- Laneko presio maximoa: $p_{\max} = 200(bar) = 20(N/mm^2)$
- Pistoien konfigurazioa: Axiala




3.2.7 Irudia

VICKERS etxeak eskaintzen duen katalogora jo da diseinaturiko sistema hidraulikorako egokia den elektrobalbula aukeratu da. Aurreko datu horiek betetzen dituen elektrobalbula DG4V-3S modelo da:

Balbula honen ezaugarri guztiak hurrengo taulan ageri dira:

Característica	
Límites de presión: Agujeros P, A y B Agujero T	350 bar (5000 psi) 210 bar (3000 psi)
Caudal nominal	Ver datos de funcionamiento
Factor relativo de servicio	Bajo funcionamiento continuo; ED = 100%
Tipo de protección: Bobinas ISO 4400 con enchufe conectado correctamente SP1 - Horquilla sencilla de 6,3 mm SP2 - Horquilla doble de 6,3 mm Enrollamiento de la bobina Cables conductores (bobinas tipo KU) Encapsulación de la bobina	IEC 144 clase IP67 (dependiendo del conector) IEC 760 IEC 760 Clase H Clase H Clase F
Fluctuación admisible del voltaje: Máxima Mínima	Consultar los límites de temperatura. 90% del valor nominal
Tiempos típicos de respuesta al 100% del voltaje nominal medidos a partir de la aplicación/eliminación del voltaje para el desplazamiento total de la corredera "2C" a: Caudal nominal P-A, B-T Presión CC (=) excitada CC (=) desexcitada	20 l/min (5.3 USgpm) 175 bar (2537 psi) 60 ms 40 ms
Consumo de potencia	
Solenoides CC al voltaje nominal y a 20°C (68°F).	
Bobinas a potencia total: 12V, modelo tipo "G" 24V, modelo tipo "H"	30W 30W

3.2.4 Taula



3.2.8 Irudia

Goiko taulari so egin ondoren, elektrobalbula honen ezaugarriak ondoko hauek dira:

$$- p_{\max}^{balb} = 350(\text{bar}) > p_{\max}^{zirk} = 200(\text{bar}) = 20\left(\frac{N}{\text{mm}^2}\right)$$

$$- Q_{\max}^{balb} = 40\left(\frac{l}{\text{min}}\right) > Q_{\max}^{zirk} = 38,6\left(\frac{l}{\text{min}}\right)$$

Ezaugarri honek gure tolesgailuarenak baino handiagoak direnez aukeraketa egokia da.

3.2.5 Emariaren kontrolerako balbula

Bestalde sistema hidraulikoaren agintean dauden balbula ezberdinei esker hainbat parametro edo ezaugarri kontrolatu daitezke, hala nola, jariakinaren abiadura, presioa eta norabidea.

Hurrengo paragrafoetan aztertuko den balbulari esker, sistema hidraulikoan dabilen emaria kontrolatuko da, hots, balbula honek emariaren balio kopuru batera iristean ez du gehiago pasatzen utziko. Honela, balbularekin emaria kontrolatu izanaren ondorioz, aldi berean, hurbilpen, laneko eta itzulerako abiadurak kontrolatuko daitezke.

Aukeraturiko emariaren kontrolerako balbulak ondoko ezaugarriak bete beharko ditu, sistema hidrauliko honetan baliagarria izan dadin:

- Presio maximoa: $p_{\max}^{balb} = 350(\text{bar}) > p_{\max}^{zirk} = 200(\text{bar}) = 20(\text{N}/\text{mm}^2)$
- Emari maximoa: $Q_{\max}^{balb} = 400(\text{l}/\text{min}) > Q_{\max}^{zirk} = 38,6(\text{l}/\text{min})$

Aurreko atalean (3.2.4 Elektrobalbula) aukeratzekoan elektrobalbula aparte berarekin batera datorren kontrol-balbula aukeratzeko aukera izan dugu. Hortaz VICKERS etxeko DG4V-3S kontrol balbula aukeratuko dugu.



3.2.9 Irudia

3.2.6. Mugatutako presiodun eta segurtasun balbula


Sistema hidrauliko honetan erabiliko den mugatutako presiodun edota segurtasun balbula aurreko elementu guztiak bezala VICKERS etxekoa izango da, izenak dioen bezala, presioa mugatzen duen balbula da eta honi esker tolesgailuan presio handiegien ondorioz elementuetan sortu daitezkeen arazoak ekiditen dira.

Jariakinaren presioa asko handitzen baldin bada, edo presio maximoa gainditzen bada, balbula aktibatzen da eta aktibatzean olio kantitate bat biltegira bideratzen du, atorraren barnean eman daitezkeen presio handiegia gutxitzeko (murrizteko). Segurtasun aparatu bat da. Aldiz, presioa bere balio normaletan dagoenean desaktibaturik mantentzen da, jariakinari bere lana behar bezala egiten utziz.

Aukeraturiko balbulak ondoko ezaugarriak bete beharko ditu:

- Presio maximoa: $p_{\max}^{balb} = 350(bar) > p_{\max}^{zirk} = 200(bar) = 20(N/mm^2)$
- Emari maximoa: $Q_{\max}^{balb} = 106(l/min) > Q_{\max}^{zirk} = 38,6(l/min)$

Goian aipatu bezala merkatuan dauden enpresa desberdinen katalogoak aztertu dira; azkenik, emariaren kontrolerako balbularen hautaketa egiteko berriz ere VICKERS enpresaren katalogoa aukeratu da. Katalogo hau jarraituz, CG2V-8 modeloa aukeratu da.

	Modelo	Descripción	Tamaño Nominal	Presión Máxima	Caudal Máximo
			in	bar (psi)	Umin (Usqpm)
	CG2V-6	Dos Pasos con piloto operado con solenoide	08		
	<u>CG2V-8</u>	Dos Pasos con piloto operado con solenoide	<u>08</u>	<u>350 (5000)</u>	<u>400 (108)</u>
	CG5V-6	Dos Pasos con piloto operado con solenoide	06		
	CG5V-8	Dos Pasos con piloto operado con solenoide	08		

3.2.10 Irudia

3.2.5 Taula

3.2.7 Sekuentzi balbula, kontra-presio eta kontra-balantzearen mugatzailea.

Hurrengo elementua sekuentzi balbula izango da, kontrol balbula bat dauka integratuta zeinek depositutik emaria bueltatzea ekiditen duen deskarga balbulatik, bestalde presio erregulatzailer batez ere osatuta. Bonbaren bukaeran dagoen presioa kargaren menpe dago eta balbula zabalik egongo da jaistean presio konstantearekin mantentzea nahi baitugu.



3.2.11 Irudia

Balbula honen betebeharra kirtenaren abiadura kontrolatzean datza. Mahai mugikorraren pisuaren eraginez, kirtenak beharrezkoa dena baino abiadura handiago bat hartzen du eta abiadura hau inoiz ezin daiteke bonbak emaniko abiadura baino handiagoa izan; eta balbula hau egon ezean, hori gertatuko litzateke. Orduan balbulak presioa eragingo dio olioak presioa eragiten dion gainazalaren beste alderdiari, hau da, beheko alderdiari, jaitsierako abiadura kontrolatuz. Aukeraturiko balbulak ondoko ezaugarriak bete beharko ditu, sistema hidrauliko honetan baliagarria izan dadin:

$$\text{Emari maximoa: } Q_{\max} = Q_{zil} \cdot 2 = 19,3 \left(\frac{l}{\min} \right) \cdot 2 = 38,6 \left(\frac{l}{\min} \right)$$

$$\text{Laneko presio maximoa: } p_{\max} = 200(\text{bar}) = 20 \left(\frac{N}{\text{mm}^2} \right)$$

Berriz ere, merkatuan dauden enpresa ezberdinen aukerak aztertu ondoren, Vickers etxeko katalogotik, X(C)G2V-8 modeloa hautatu da. Zeinek ezaugarriak hurrengoak dira:

$$\text{Emari maximoa: } Q_{\max} = 80 \left(\frac{l}{\min} \right)$$

$$\text{Laneko presio maximoa: } p_{\max} = 350(\text{bar}) = 35 \left(\frac{N}{\text{mm}^2} \right)$$

Argi ikusten da baldintzak betetzen dituela.

3.2.8 Bero trukagailua

Sistema hidraulikoaren olioaren biskositatea eta baita errendimendua jaitsi ez dadin, olioaren tenperaturaren igoera ekidin beharra dago. Honela, olioak lana burutu ondoren daukan tenperatura murrizten duen aparatuari bero trukagailu deritzo.



3.2.12 Irudia

Olio hodian zehar igarotzean horiei bero zati bat transmititzen die, baina olioaren tenperatura jaisteko ez da nahikoa. Olioaren beroaren arazoa ez da soilik bero trukagailu batekin konpontzen, horregatik emaria konstante mantendu behar da, ondorioz biskositatea balio antzekoekin mantentzeko helburua duen balbula termoestatikoa jarriko da.


Gainera, balbula itzulezin bat, “by-pass”, bero trukagailuarekiko paralelo jartzen da. Honek olioren tenperatura eta ondorioz, lanerako ez bada egokia, beraz, olioak arazoak izan baititzake trukagailutik igarotzeko, eta ondorioz gain presio bat izango du. Gain presio honen erruz hoderian eta bestelako elementuetan hausturak eragin ditzake.

Aukeraturiko balbulak ondoko ezaugarriak bete beharko ditu, sistema hidrauliko honetan baliagarria izan dadin:

$$- \text{ Emari maximoa: } Q_{\max}^{\text{truk}} = 70 \left(\frac{l}{\text{min}} \right) > Q_{\max}^{\text{zirk}} = 38,6 \left(\frac{l}{\text{min}} \right)$$

Merkatuan dauden enpresa desberdinen katalogoak aztertu dira; azkenik, emariaren kontrolerako balbularen hautaketa egiteko BOWMAN enpresaren katalogoa aukeratu delarik. Katalogo aztertu egin ondoren, EC 160-1425-5 modelo aukeratu da.

Bero trukagailu honen dimentsio eta ezaugarriak hurrengoak dira:



		A	B	C	D
	kg	mm	mm	mm	BSP
EC 80-1425-1	2,4	174	60	60	1/2"
EC100-1425-2	3,2	260	140	104	3/4"
EC120-1425-3	3,8	346	226	190	3/4"
EC140-1425-4	4,8	444	324	288	3/4"
EC160-1425-5	5,7	572	452	416	3/4"

3.2.13 Irudia eta 3.2.6 Taula

3.2.8 Balbula termoestatikoa

Balbula termoestatikoaren honen xedea zirkuituko olioaren temperatura konstante mantentzea da eta ondorioz jariakinaren biskositearen balioak ahalik eta aldaketa gutxien jasa dezan, horrela errendimendua handiagoa izango delarik.

Merkatuan dauden fabrikatzaile desberdinen aukerak aztertu ondoren, sistema hidraulikoarentzat DANFOSS markako balbula erregulatzaila aukeratu da.

Balbula termoestatiko honek ez du energiarik behar lan egiteko, gainera, emaria konstante mantentzen duenez temperatura erregulatzeko baliagarriak dira. Balbula hau muntai euskarri batez dator tolesgailuan ezartzeko.



3.2.14 Irudia

Hautatu den balbula termoestatikoa DANFOSS etxeko AVTA-15 modeloa da. Balbula honen konexioa G ½"-takoa izango da eta nahiz eta olioaren temperatura balbula hau gabe 25-65°C artean oszilatuz, balbula honen bitartez temperatura 45-50°C artean mantentzea lortzen da.

Balbula termoestatikoaren kokapena plano orokorrean ikus daiteke.

3.2.10. Olioak

Olioak aukeratzeko orduan bi irizpide nagusi izan behar dira kontutan, lehengoa olioak izango duen xedea edo helburua; eta bigarrena olioak makina edo instalazio horretarako izan behar dituen ezaugarri espezifikoak. Gainera olio honek mantentzen periodiko bat beharko du.

-I) Xedea edo helburua**a) Potentzia igorri (transmititu):**

Potentziaren transmisioa egokia izan dadin, olioak erraz barneratu behar da sistemako pieza guztien artean. Erresistentzia handia izanez gero, karga galerak sortuko dira; ondorioz lan berdina egiteko potentzia handiagoa beharko da errendimendua jaitziz.

b) Sistema koipeztea:

Olioak sistema Koipezteko gaitasuna izan behar du, hots, azalaren gainean olio kapa fin bat sortzea gainazal metalikoen arteko labainketa egoki bat bermatuz, marruskadura gehienez ekidinez. Aplikazioen arabera, hainbat olioetatze sistema desberdin daude (olioztatze hidrostatikoa, hidrodinamikoa, koipeztea etabar).

c) Sistema hoztea:

Olioak sistema osatzen duten piezek funtzionamendu etengabearen ondorioz garatutako beroa xurgatzea eta biltegira iristean bero hori askatu behar dute.

d) Juntekiko inerteia izatea:

Olioak juntekiko aurrean ez du inolako eragin edo erreakziorik sortu behar.

e) Bateragarria izan sistema hidraulikoko filtroekin:

Olioak bateragarria izan behar da sistemako elementu guztiekin, hots, ez du inolako erreakzio kimikorik sortu behar. Funtzionamendurako eta filtroentzat ez baita onuragarria. Sarritan, gertatzekotan, erreakzio kimiko hauek zeramikazko piezekin gertatzen dira (gehien bat zeramikazko filtroekin).

f) Egonkortasun kimikoa:

Denbora igarotakoan olioak aldaketarik ez dezan izan (hotza, beroa, presio handia, etabar) era etengabean kontrolatu eta mantendu behar da.

.II) Ezaugarriak:**a) Biskositatearen aukeraketa faktoreak:**

Tolesgailuaren sistema hidraulikoan zirkulatzen duen olioaren biskositatea definitzeko, hurrengoak puntuak hartzen dira kontutan:

i) Energia eraldatzeko gailuek edota balbulek, olioaren biskositate maila zehatz bat eskatzen dute.

ii) Olioaren tenperatura, maximo bat baino txikiagoa izan behar da.

b) Hasteko tenperatura minimoa:

Normalizatuta dauden arauen arabera, olioaren hasierako tenperaturak hurrengo baldintza bete behar du: sistemara sartu aurretiko tenperatura, beti izozte tenperaturatik 10°C gorago egon behar da.

III) Olio hidraulikoaren mantentzea:

Olio hidraulikoaren mantentzerako, sistema hidraulikoan harturiko laginen bitartez azterketa periodikoak egitea gomendatzen da. Merkatuan dauden enpresa desberdinen olioak aztertu dira; azkenik, tolesgailu hidraulikoaren funtzionamendua egokia izan dadin, hautaketa egiteko ERTOIL OILTRAN enpresaren W motakoa olio hautatu da.



3.2.15 Irudia

Bere ezaugarri garrantzitsuenak hurrengoak dira:

- Biskositate indize altua daukan jariakin hidraulikoa da, horrela temperatura tarte handi batean lan egin dezake.
- Higadurarekiko errendimendu ona du eta presio oso altuak jasan ditzake. Orduan, olio honek presio altuen eta baldintza txarren menpe lan egin dezake, batez ere igogailu hidraulikoak dituzten zirkuituetan agertzen den bezalaxe.

Ondokoak dira olio honen kalitate mailak araudi eta beste etxe batzuen arabera:

NIVELES de CALIDAD

· AFNOR NFE 48603 HV	· DIN 51524 PART 3-HVLP	· FILTRABILIDAD AFNOR (dry and wet)
· DENISON HF-0, HF-1, HF-2	· ISO 6743-4 HV	· CINCINNATI MILACRON P68,69,70
· VICKERS I-286-S y M 2950 S	· FILTRABILIDAD DENISON	

3.2.16 Irudia

Bestalde, hauek dira, olio honen ezaugarri karakteristikoak:

CARACTERÍSTICAS TÍPICAS

CARACTERÍSTICAS	NORMA ASTM	OILTRAN W-46	OILTRAN W-68
GRADO ISO		46	68
Densidad 15°C, g/cc	D-4052	0,878	0,881
P. Inflamación V/A, Cº	D-92	207	210
P. Congelación, ºC	D-97	-33	-32
Viscosidad a 40 ºC, cSt	D-445	43,9	65,1
Viscosidad a 100 ºC, cSt	D-445	7,85	10,52
Índice de Viscosidad, mín.	D-2270	150	150

3.2.7 Taula

Sistema honetarako olio biak balio digute, baina ERTOIL OILTRAN 68W olio hobea da, errendimendu hobeak ematen baititu.

3.2.11 Olio biltegia

Biltegiaren helburu nagusia jariakina, hots olio, gordetzea da. Bestalde, baditu beste hainbat funtzio. Hona hemen:

- i) Olioak sistematik igaro eta betebeharra egin ostean barneratutako beroa ateratzea.
- ii) Jariakina gordetzen du, dena ez delako aldi berean erabiltzen.
- iii) Kutsatzaileak sedimentatzea (banatzea) baimentzen du. Elementu hauek biltegiaren ondoan geratuz.
- iv) Aire eta jariakina guztiz banatzea. Presio altuetan lan egitearen ondorioa.
- v) Sistemari zehar olioak hartzen duen ura banandu egiten du. Ura ondoan geratuz.



3.2.17 Irudia

Edozein zirkuitu hidraulikoren depositua ponpak minutu baterako behar duen emaria lau edo bost aldiz biderkatua biltzeko gai dena izan behar da, Carnicer Royo, E-ren "Oleohidráulica. Conceptos básicos" liburuaren arabera. Hau da, gure kasuan ponpak 31,65 l/min kapazitatea du (**3.2.3 Bonbaren aukeraketa** atalean ikus daiteke):


$$V_{\text{batazbestekoa}} = \frac{4 \times Q_{\text{ponpa}} + 5 \times Q_{\text{ponpa}}}{2} = \frac{4 \times 31,65 + 5 \times 31,65}{2} = 142,425l$$

Hala ere, baldintza hau jakinda guk aukeratuko dugun olio deposituak beste %10-eko kapazitatea (airezko marjina) izango du segurtasunagatik, airea egon dadin:

$$V_{\text{depositoa}} = V_{\text{batazbestekoa}} + \%10 = 142,43 + 14,24 = 156,67l$$

Gauzak horrela, guk aukeratuko dugun depositua KTR etxekoa izango da, BNK 250 A-E, 235 l-ko bolumena jasaten duena (BNK 160 modeloak 150l kapazitatea dauka eta ez ditu betebeharrak betetzen) DIN 24339 arauaren arabera. Beharrezkoa baino handiagoa denez olioak biltegian berotasun zati bat disipatuko du.

as from NG 250



3.2.18. Irudia

Series BNK Form A, NG 63-1250																									
Order description	Avail. vol.	Weight	Tank dimensions [mm]																Cleaning cover		Tank completely available from stock				
			NG	Litres	kg	L ₁	L ₂	L ₃	L ₄	B ₁	B ₂	B ₃	B ₄	H ₁	H ₂	H ₃	H ₄	H ₅	D ₁	D ₂	S ₁	S ₂	No.	Type	Cover design E
BNK 63	59	47	508	308	-	-	375	365	285	45	660	410	403	205	360	248	324	3	3	1	V 324-6	●			
BNK 100	92	77	633	393	-	-	474	460	360	57	660	407	399	205	357	248	324	4	4	1	V 324-6	●			
BNK 160	152	112	810	570	-	-	604	590	490	57	660	410	400	205	360	248	324	4	4	1	V 324-6	●			
BNK 250	235	148	1010	770	410	710	704	690	590	57	680	430	418	215	380	248	324	4	4	2	V 324-6	●	on request		
BNK 400	375	245	1514	1274	750	1132	749	735	635	57	680	430	417	215	380	248	324	4	7	2	V 324-6	●	on request		
BNK 630	595	366	1514	1274	750	1132	959	945	845	57	770	520	504	265	470	383	449	4	7	2	V 449-6	●	on request		

3.2.8 Taula

Bestalde, irteera eta sarrera banandurik egongo dira, bestela sarrerako tenperatura altuagoa izango litzateke eta guk kontrakoa gerta dadin nahi dugu.

Biltegiaren garbiketa olio aldazten den bakoitzean egitea gomendatzen da.

Olio biltegia non kokatuta joango den ikusteko jo plano orokorrera.

3.2.12. Motorearen aukeraketa

Motorraren aukeraketarako kontutan izan behar da motorraren funtzionamendua ez dela jarraia izango, bonba martxan jartzeko beharrezkoa den potentzia baino handiagoa ematen duen motorra aukeratu beharko bait. Gainera bada ezparako bonbaren %30-eko gain-potentzia erreserba bat izan beharko du diseinuz kanpoko potentzia gehitze bat izango balitz berau jasateko.

$$P_{motorra}^{min} = P_{bonba} \times 1,3 = 13,244 \times 1,3 = 17,22kW$$

Torlojuen fluentzizko tentsioa: $\sigma_{flu} = 6400 \text{ kg/cm}^2$

Segurtasun koefizientea, kasu konetan: S.K. = 3

Balioak formularen ordezkatzuz:

$$z = d \times \sqrt{\frac{p \times s}{n \times \sigma_{flu}}} = 145 \times \sqrt{\frac{200 \times 3}{12 \times 6400}} = 12,82 \text{ mm}$$



3.3.34 Irudia

SUPPORTS etxeko DIN 912 motako M16-ko torlojuak erabiliko dira zilindroa eta tapa lotzeko. Aurreko tamaina berbera aukeratu da.

Zilindroaren itxitura taparen argibide gehiago nahi izanez gero ikusi T.H.3.6 planoan.

3.3.1.7. Ardatzaren zorroaren kalkulua


Pieza honen kalkuluak gauzatzeko, landapena jasaten duen oinarri minimoa kalkulatu da. Jarraian atorrari lotzeko behar diren torlojuen diametro minimoa kalkulatu da eta azkenik lotura gauzatzeko behar den lodiera kalkulatu da. Ardatzaren zorrerako erabiliko den materiala atorrarenaren berdina izango da, ST-52.

ST-52 materialaren ezaugarriak:

Apurketa tentsioa: $\sigma_R = 5600 \text{ kg/cm}^2$

Fluentzizko tentsioa: $\sigma_{flu} = 4500 \text{ kg/cm}^2$

Britnel gogortasuna: $HB = 145$



3.3.35 Irudia

- Bermatzea oinarriaren kalkulua:

$$\sigma = \frac{F}{A} \Rightarrow A = \frac{F}{\sigma} \quad ; \quad A = \frac{\pi \times (d_{kan}^2 - d_{barne}^2)}{4}$$

Non; σ = Laneko gehieneko tentsio onargarria kg/cm^2 -tan S.K.=4 izanda,

$$\sigma_{onarg} = 1125 \text{ kg/cm}^2$$

F = Aplikatutako indarra kg -tan = 40000 kg

A = Bermatzea oinarriaren azalera cm^2

d_{kan} = Oinarriaren kanpoko diametroa cm -tan

d_{barne} = Oinarriaren barneko diametroa cm -tan (atorraren barneko diametroa) = 16 cm

Beraz:

$$A = \frac{F}{\sigma} = \frac{40000}{1125} = 35,56 \text{ cm}^2$$

$$A = \frac{\pi \times (d_{kan}^2 - d_{barne}^2)}{4} \Rightarrow d_{kan} = \sqrt{\frac{4 \times A}{\pi} + d_{barne}^2} = \sqrt{\frac{4 \times 35,56}{\pi} + 16^2} = 17,36 \text{ cm} \approx 173,6 \text{ mm}$$

Kontserbakorrakoak izateko 174 mm-takoa hartzea erabaki da.

- Torlojuen diametroaren kalkulua:

Jarraian torlojuen diametroaren kalkulua egingo da kontutan izanda torloju hauek trakzioan lan egiten dutela. Olioak pistoia beherantz bultzatzen duenean, gune berean ardatzaren bermatzea gorantz bultzatzen du, beraz sortuko den indarra hurrengoa izango da:

$$F = P \times A \quad ; \quad A = \frac{\pi \times (D^2 - d^2)}{4}$$

Non: D = 16 cm

d = 10 cm (ardatzaren lodiera gune horretan)

Horrela:

$$A = \frac{\pi \times (16^2 - 10^2)}{4} = 122,53 \text{ cm}^2$$

$$F = 200 \times 122,53 = 24.504,42 \text{ kg}$$

Trakziozko tentsio axiala kalkulatzeko:

$$\sigma = \frac{F}{A} \Rightarrow A = \frac{F}{\sigma} \quad ; \quad A = n \times \left(\frac{\pi \times d^2}{4} \right)$$

Non; σ = Trakziopean, torlojuen tentsio axial maximoa kg/mm²-tan = 80 kg/mm²

F = Torlojuet eutsi behar duten indarra kg-tan = 24.504,42 kg

A = Torlojuen zeharkako azalera mm²-tan

n = Torloju kopurua, kasu honetan 10 torloju

d = Torlojuen diametroa mm-tan

$$A = \frac{F}{\sigma} = \frac{24504,42}{80} = 306,31 \text{ mm}^2$$

$$A = n \times \left(\frac{\pi \times d^2}{4} \right) \Rightarrow d = \sqrt{\frac{4 \times A}{n \times \pi}} = \sqrt{\frac{4 \times 306,31}{10 \times \pi}} = 6,25 \text{ mm}$$



3.3.36 Irudia

Lortutako balio kontutan hartuta SUPPORTS etxeko DIN 933 motako M16-ko torlojuak aukeratu dira.

- Lotura gunearen beharrezko lodiera:

Hurrengo kalkulua torlojuen kokapen gunearen lodiera izango da. Gune honetan materiala indar ebakitzaileraren baten eraginpean dago.

$$\tau = \frac{F}{A} \Rightarrow A = \frac{F}{\tau} \quad ; \quad A = \pi \times d \times e \Rightarrow e = \frac{A}{\pi \times d}$$

Non; τ = Materialaren tentsio ebakitzaileraren maximoa kg/mm^2 -tan = 15 kg/mm^2

F = Aplikatutako indarra kg -tan = 24.504,42 kg

A = Tentsio ebakitzaileraren dagoen azalera mm^2 -tan

r = Tentsio ebakitzaileraren dagoen azaleraren erradioa mm -tan = 113 mm

e = Tentsio ebakitzaileraren dagoen azaleraren lodiera mm -tan


$$A = \frac{F}{\tau} = \frac{24504,42}{15} = 1633,63 \text{ mm}^2$$

$$A = 2 \times \pi \times r \times e \Rightarrow e = \frac{A}{\pi \times d} = \frac{1633,63}{2 \times \pi \times 113} = 2,3 \text{ mm}$$

Segurtasun handiagoa izateko eta zulo askoko gunea denez lotura gunerako lodiera $e=10\text{mm}$ hartuko da.

3.3.1.8 Ardatzaren zorroaren itxitura taparen kalkulua

Jarraian ardatzaren bermatze piezaren gainean doan taparen kalkulua egingo da. Aurreko piezekin egin den moduan, lehenengo eta behin elementu honen bermatze gunea kalkulatu da, gero lotura gunearen lodiera eta azkenik lotura torlojoen neurria.



3.3.37 Irudia

- Bermatze gunea (errodamenduen gainean doan atsedean gunea):

Ardatzaren bermatzearekin bezala, kirtena jaisterakoan olioak presioa eragingo du ardatzaren topearen bitartez taparengan, konpresio indarrak eraginez. Beraz tentsio hauek jasango dituen azalera aztertu beharko da eta honekin ardatzaren zorroaren itxituraren barneko diametroa zehaztuko da.

$$\sigma = \frac{F}{A} \Rightarrow A = \frac{F}{\sigma} \quad ; \quad A = \frac{\pi \times (D^2 - d^2)}{4} \quad ; \quad F = P \times A' \quad ; \quad A' = \frac{\pi \times D'^2}{4}$$

Non; Piezaren materiala: F-1140

$\sigma_{\text{onargarria}}$ = Materialaren tentsio onargarria kg/cm²-tan = 3000 kg/cm²

F = Aplikatutako indarra kg-tan

A = Bermatze gunearen azalera cm²-tan

D = Bermatze gunearen kanpoko diametroa cm-tan = 16 cm

d = Bermatze gunearen barneko diametroa cm-tan

A' = Ardatzaren topearen azalera cm²

D' = Ardatzaren topearen diametroa cm-tan = 10 cm

$$A' = \frac{\pi \times D'^2}{4} = \frac{\pi \times 10^2}{4} = 78,54 \text{ cm}^2$$

$$F = p \times A' = 200 \times 78,54 = 15.708 \text{ kg}$$

$$A = \frac{F}{\sigma} = \frac{15708}{3000} = 5,24 \text{ cm}^2$$

$$A = \frac{\pi \times (D^2 - d^2)}{4} \Rightarrow d = \sqrt{D^2 - \frac{4 \times A}{\pi}} = \sqrt{16^2 - \frac{4 \times 5,24}{\pi}} = 15,79 \text{ cm} = 157,9 \text{ mm}$$

Segurtasunagatik eta errodamendu komertzialen erabilpena errazteko barneko diametroa 140 mm-koa aukeratuko da.

- Lotura gunearen lodiera:

Gune honek jasango duen esfortzuan oinarrituz, gune honetan dagoen tentsioa ebakitzaila izango dela dakigu eta beraz tentsio honi dagozkion adierazpenak erabiliko dira.

$$\tau = \frac{F}{A} \Rightarrow A = \frac{F}{\tau} \quad ; \quad A = \pi \times d \times e \Rightarrow e = \frac{A}{\pi \times d}$$

Non; Piezaren materiala: F-1140

$$\tau = \text{Materialaren tentsio ebakitzaila max.} = 0,5 \times \sigma_{on\ arg} = 1500 \text{ kg/cm}^2$$

F = Aplikatutako indarra kg-tan

A = Tentsio ebakitzaila dagoen azalera cm²-tan

d = Tentsio ebakitzaila gunearen diametroa cm-tan = 16 cm

e = Lotura gunearen lodiera cm-tan

$$A = \frac{F}{\tau} = \frac{200 \times 78,54}{1500} = 10,472 \text{ cm}^2$$

$$A = \pi \times d \times e \Rightarrow e = \frac{A}{\pi \times d} = \frac{10,472}{\pi \times 16} = 0,2083 \text{ cm} \approx 2,083 \text{ mm}$$

Torlojuen zuloen eragiten duten sekzio murrizketa dela eta segurtasunagatik lotura generako lodiera 10 mm-koa aukeratuko da.

- Lotura torlojuen neurria:

Pieza honekin bukatzeko ardatzaren zorroarekin duen lotura torlojuen kalkulua egitea besterik ez da falta. Honetarako torlojuen trakzioko tentsioa aztertuko da.

$$\sigma = \frac{F}{A} \Rightarrow A = \frac{F}{\sigma} \quad ; \quad A = n \times \left(\frac{\pi \times d^2}{4} \right)$$

Non; σ = Trakziopean, torlojuen tentsio axial onargarria = 80 kg/mm²

F = Torlojuak eutsi behar duten indarra kg-tan

A = Torlojuen zeharkako azalera mm²-tan.

n = Torloju kopurua, kasu honetan 10 torloju.

d = Torlojuen diametroa mm-tan

$$A = \frac{F}{\sigma} = \frac{200 \times 78,54}{8000} = 1,9635 \text{ cm}^2$$

$$A = n \times \left(\frac{\pi \times d^2}{4} \right) \Rightarrow d = \sqrt{\frac{4 \times A}{n \times \pi}} = \sqrt{\frac{4 \times 1,9635}{10 \times \pi}} = 0,5 \text{ cm} = 5 \text{ mm}$$

M6-ko diametroa hartuko da.



3.3.38 Irudia

SUPPORTS etxeko DIN 912 motako M6-ko torlojuak erabiliko dira zilindroa eta tapa lotzeko.

3.3.1.9. Barneko topearen kalkulua

Barneko topeak, kirtenaren laneko mugimenduaren ibilbidea mugatzea eta honek ezartzen dion indarra jasatea du helburua. Hasiera baten indar hau jasaten duen hariaren neurria kalkulatu da, jarraian piezak bihurtura indarra jasaten duen konprobatuz. Ondoren topean sortuko den konpresioa pairatzeko beharrezkoa den diametroa kalkulatu da, azkenik buloien kalkulua eginez. Piezaren kalkuluetarako Spotts, M. eta Shoup, T.-en “Elementos de maquinas” liburuan agertzen diren adierazpenak erabiliko dira.

Hasierako datuak:

Topearen materiala: F-1250

σ_{flu} = Fluentzia tentsioa kg/mm^2 -tan = $75 kg/mm^2$

T_{flu} = Fluentzizko tentsio ebakitzaila = $37,5 kg/mm^2$

D = Topearen kanpoko diametroa mm -tan = $117 mm$


F = Topeak jasan behar duen karga kg -tan = $40.000 kg$

p = Hariaren pausua mm -tan = $12 mm$

d = Piezaren barne diametroa mm -tan = $75 mm$

T = Momentu bihurtzaila $kg \cdot cm$ -tan = $64 kg \cdot cm$

(Torloju amaigabe bakoitzak jasan behar duen indarra)



3.2.39 Irudia

$$T(kg \times m) = 716,2 \times \frac{N(C.V)}{n(r.p.m.)} \Rightarrow \text{gero zati bi } T_1 + T_2 = T \text{ delako}$$


Motore erreduktorearen N = 0,25 C.V. eta n = 140 r.p.m.

d = Buloen diametroa mm -tan = $10 mm$

H = Topearen altuera mm -tan = $100 mm$

H₁ = Hartzaren altuera mm -tan

- Hariaren neurriaren kalkulua:



3.3.40 Irudia

$$\tau_{onar} \geq \frac{F \times p}{\pi \times H \times H_1 \times d}$$


$$H_1 = 0,5 \times p = 0,5 \times 12 = 6 \text{ mm}$$

$$\tau_{onar} \geq \frac{40000 \times 12}{\pi \times 100 \times 6 \times 75} = 3,395 \text{ kg/mm}^2$$

$$\tau_{onar} = 37,5 \geq 3,395 \text{ denez, piezak ondo jasango du indarra}$$

Kontutan izanda lortutako emaitzak Tr75x12-ko haria eta h = 100 mm-ko altueradun topea aukeratu da.

- Bihurduraren erresistentziaren kalkulua:



3.3.41 Irudia

$$\tau = \frac{16 \times T}{\pi \times d^3}$$


Balioak ordezkatzuz:

$$\tau = \frac{16 \times 64}{\pi \times 7,5^3} = 0,77 \text{ kg/cm}^2$$

Momentu bihurtzaileagatik arriskurik ez dela egongo frogatzen da, materialak aguantatuko duenarena baino askoz txikiagoa delako.

- Konpresio indarraren kalkulua:

Atal honetan buloiak kokatuta joango diren lekuetan, kajeretan, sortzen diren konpresiozko tentsioak kontutan izanda topeak apurtzen den ala ez konprobatuko da.



3.3.42 Irudia

$$F = \frac{T}{r} \quad ; \quad \sigma = \frac{F}{A}$$

Balioak ordezkatzuz:

$$F = \frac{64}{7} = 9,14 \text{ kg}$$

$$\sigma = \frac{9,14}{10 \times 1,5} = 0,609 \text{ kg/cm}^2$$

Ikusten den bezala ez da inolako arriskurik egongo sortuko diren tentsioak oso txikiak direlako.

- Buloiaren konprobaketa:

$$\tau = \frac{F}{A} \quad ; \quad A = \frac{\pi \times d_{buloia}^2}{4}$$

Balioak ordezkatzuz:

$$A = \frac{\pi \times 1,0^2}{4} = 0,79 \text{ cm}^2$$

$$\tau = \frac{9,14}{0,79} = 5,78 \text{ kg/cm}^2$$

Kalkuluan indarra zati 2 egin da alde bakoitzean bi buloi daudelako. Behin tentsioen kalkulua eginda buloietan apurketa arriskurik ez dela egongo frogatzen da.

3.3.1.10. Puntzoi eroalearen gidarien kalkulua

Puntzoi eroalearen gidaria egiteko, merkatuan tolesgailuak ekoizten dituzten enpresek erabiltzen duten material berdina erabilikoa da, egurra, Douglass motakoa hain zuzen ere.

Gidarien dimentsioen aukeraketarako esperientzian oinarrituko gara, beste tolesgailu hidraulikoen berezitasunak aintzat hartuz.

Datuak: Gidarien gain egiten den indarra: $F = 40\text{tn} \times 0,375 = 15.000 \text{ kg}$


Gidari eta puntzoi eroalearen arteko marruskadura koefizientea = 0,375

Luzera: $L = 600 \text{ mm}$

Zabalera : $H = 50 \text{ mm}$

Gidarien lodiera : $T = 60 \text{ mm}$

Materiala : Douglass egurra; $\sigma_{flu} = 50\text{Mpa}$



3.3.43 Irudia

Gidariak daramatzan torlojuak puntzoi eroaleak sortutako indarra tentsio ebakitzaille moduan jasan behar izango dute:

$$A = \frac{F}{\tau} \quad ; \quad A = n \times \left(\frac{\pi \times d^2}{4} \right) \quad ; \quad F = F_{zilindro} \times \mu$$

Non; $A =$ Torlojuen zeharkako azalera mm^2 -tan

$F =$ Gidariarengan eragiten den indarra kg -tan

$\tau =$ Torlojuak jasaten duten tentsio ebakitzaillea kg/mm^2 -tan = 64 kg/mm^2

$D =$ Torlojuen diametroa mm -tan

$F_{zilindro} =$ Zilindro bakoitzak eragiten duen indarra kg -tan = 40.000 kg

$\mu =$ Gidari eta puntzoi eroalearen arteko marruskadura koef.= 0,375


$n =$ Torloju kopurua, kasu honetan 4 torloju

$$F = F_{zilindro} \times \mu = 40000 \times 0,375 = 15000\text{kg}$$

$$A = \frac{F}{\tau} = \frac{15000}{64} = 234,375\text{mm}^2$$

$$A = n \times \frac{\pi \times d^2}{4} \Rightarrow d = \sqrt{\frac{4 \times A}{n \times \pi}} = \sqrt{\frac{4 \times 234,375}{4 \times \pi}} = 9,75\text{mm}$$


Segurtasunagatik DIN 912 motako M10-ko torlojuak hartuko dira.




3.3.44 Irudia

3.3.2. Puntzoi eroalearen kalkulua

Hasiera batean puntzoi eroalean agertuko diren indar eta momentu makurtzaileak aztertuko dira. Horretarako atal hau boladizoko habe (mentsula) bat balitz moduan aztertuko dugu, bertan momentuak eta indarrak aplikatuta egongo direlarik.



3.3.45 Irudia




3.3.46 Irudia

Materiala: ST 275 JR


Apurketa tentsioa: $\sigma_R = 370 \text{ Mpa}$

Fluentzizko tentsioa: $\sigma_{flu} = 300 \text{ Mpa}$

Xafla tolesterakoan goranzko indar banatu bat sortzen da puntzoi eroalean:



3.3.47 Irudia



3.3.48 Irudia

$F_a = 40.000 \text{ kg}$ eta $F_b = 40.000 \text{ kg}$

$$\sum F_v = 0; F_a + F_b = R \cdot 5,003 \rightarrow \underline{R = 15990,41 \text{ kg/m}}$$

Puntzoi eroalea zatika aztertzen badugu:

$$\sum F_v = 0; V = 15.990,41 \cdot x$$


$$x = 0 \text{ m}; V = 0 \text{ kg}$$

$$x = 0,220 \text{ m}; V = 3.517,9 \text{ kg}$$

$$\sum M = 0; M = 15.990,41 \cdot x \cdot (x/2)$$

$$x = 0 \text{ m}; M = 0 \text{ kg} \cdot \text{m}$$

$$x = 0,220 \text{ m}; M = 384,79 \text{ kg} \cdot \text{m}$$



$$\sum F_v = 0; V = -40\,000 + 15\,900,42 \cdot (0,220 + x)$$

$$x = 0 \text{ m}; V = -36\,501,91 \text{ kg}$$

$$V = 0 \text{ kg}; x = 2,28 \text{ m}$$


$$\sum M = 0; M + 40\,000 \cdot x - 15\,900,42 \cdot (0,220 + x) \cdot (0,220 + x) / 2 = 0$$

$$x = 0 \text{ m}; M = 384,79 \text{ kg} \cdot \text{m}$$

$$x = 5,003/2 = 2,50015 \text{ m}; M = -158\,943,73 \text{ kg} \cdot \text{m}$$


3.3.49 Irudia

Diagrama osoa marraztuz:



3.3.50 Irudia


Baina momentu makurtzaileen diagrama ez da baliogarria izango inertzi momentu desberdina duten puntzoi eroalearen sekzio aldaketetarako. Beraz, orain puntzoi eroalearen azalera aldaketa gunean sortuko diren tentsioak kalkulatu dira, apurketa arriskua izan dezaketelako. Aztertuko den gunearen luzera 0,4515 m denez, hemen sortuko den goranzko indarra hurrengoia izango da:




3.2.51 Irudia

$$F_q = 15900,41 \times 0,4515 = 7.179,04 \text{ kg}$$

Kontutan izanda gunea horretan zilindroak beheranzko 40.000 kg-ko indarra eragiten duela, erresultantea hurrengoia izango da:



3.3.52 Irudia



3.3.53 Irudia

$$F = 40.000 - 7.179,04 = 32.820,96 \text{ kg}$$

Indar honek tentsio ebakitzailleak sortuko ditu eta momentu makurtzailearen bitartez, tentsio axialak sortuko dira:

$$M = F \times d \quad ; \quad \sigma = \frac{M \times y}{I_{LN}} \quad ; \quad I_{LN} = \frac{b \times h^3}{12}$$

- Non;
- M = Indarrak sortutako momentu makurtzailea Tn x cm-tan
 - F = Aplikatutako indarra Tn-tan = 32,82 Tn
 - d = Aztertutako azaleratik indarra aplikatuta dagoen puntuen arteko distantzia cm-tan = 23,15 cm
 - σ = Momentu makurtzaileagatik sortutako tentsio axialak
 - y = Lerro neutrotik aztertuko den punturaino dagoen distantzia = 22,5 cm
 - I_{LN} = Lerro neutroarekiko inerti momentua cm^4 -tan
 - b = Zeharkako azaleraren oinarria cm-tan = 7 cm
 - h = Zeharkako azaleraren altuera cm-tan = 50 cm

Beraz:

$$M = F \times d = 32,82 \times 23,15 = 759,78 Tn \times cm$$

$$I_{LN} = \frac{b \times h^3}{12} = \frac{7 \times 45^3}{12} = 53156,25 cm^4$$

$$\sigma = \frac{M \times y}{I_{LN}} = \frac{759,78 \times 22,5}{53156,25} = 0,3216 Tn/cm^2 = 321,6 kg/cm^2$$

Aplikatutako indarren eraginez ere tentsio ebakitzailleak agertuko dira:

$$\tau = \frac{F}{A}$$

- Non;
- A = Aztertutako gunearen sekzioaren azalera cm^2 -tan
 - F = Aplikatutako indar erresultantea = 32820,96 kg

$$\tau = \frac{F}{A} = \frac{32821}{45} = 729,36 kg/cm^2$$

“Mohr”-en zirkuluaren bitartez tentsio maximo eta minimoak kalkulatu dira:

$$\sigma_{1,2} = \frac{\sigma_x + \sigma_y}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{\sigma_x - \sigma_y}{2}\right)^2 + \tau_{xy}^2} = \frac{321,6 + 0}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{321,6 - 0}{2}\right)^2 + 729,36^2}$$

$$\sigma_1 = 907,68 \text{ kg/cm}^2$$

$$\sigma_2 = -586,08 \text{ kg/cm}^2$$

Azkenik, apurketa arriskurik dagoen jakiteko “Mises-Hencky”-ren teorema aplikatu behar da.

$$\sigma' = \sqrt{\frac{\sigma_1^2 + \sigma_2^2 - (\sigma_1 \times \sigma_2)}{2}} = \sqrt{\frac{907,68^2 + (-586,08)^2 - (907,68 \times (-586,08))}{2}}$$

$$\sigma' = 921,78 \text{ kg/cm}^2 \Rightarrow \sigma' = \frac{\sigma_{flu}}{S.K.} \Rightarrow S.K. = \frac{\sigma_{flu}}{\sigma'} = \frac{3000}{921,78} = 3,25$$

Frogatuta geratzen da ez dagoela arriskurik, S.K.>1 delako.

Bermatze guneek konpresio indarra jasaten dute, azken honek gilbordura deritzon fenomenoaren eragin dezakeelarik. Fenomenoaren ondorioz, piezek kurbadura bat pairatzen dute eta zenbait kasutan elementua apurtu daiteke kalte larriak ekar eraginez.

Gilbordura aztertzean ez da momentu makurtzailerik aintzat hartzen indar axialak baino. Hau saihesteko elementuak luzera maximo bat edukiko du eta hori da, Gere, J. eta Timoshenko, S.-en “Mecánica de materiales” liburuan azaltzen diren adierazpenak jarraituz kalkulatu da:

$$\sigma_{krit.} = \frac{P_k}{A} \ll \sigma_{on arg.}$$

Non;

$\sigma_{krit.}$: Karga kritikoak eragindako tentsioa

P_k : Karga kritikoa

A_{min} : Bermaketaren azalera

$\sigma_{on arg.}$: Materialaren tentsio onargarria

Karga kritikoaren balioa kalkulatzeko prozedura desberdinak erabili dira, ondoren adierazten den moduan:

Adierazpen zehatzaren baieztapena:

Prozedura honetan hurrengo ekuazioa egiaztatu behar da:

$$\frac{L_{bermaketa}}{i} > 40 \text{ Non; } L_{bermaketa} : \text{Bermaketaren luzera}$$

$$i : \text{Biraketa erradioa. Non, } i = \sqrt{\frac{I}{A_{sektzioa}}}$$

I : Zeharkako sektzioaren inertzi momentua

$A_{sektzioa}$: Bermaketaren azalera

$$\text{Bermaketaren luzera diseinua: } L_{bermaketa} = 336,4 \text{ mm}$$

Luzera atera ostean biraketa erradioa behar da, horretarako adierazpenean ezezagun diren bermaketaren zeharkako sektzioaren inertzi momentua eta azalera kalkulatu beharko dira:

$$I = \frac{b \times h^3}{12} = \frac{7 \times 45^3}{12} = 53156,25 (\text{cm}^4)$$

$$A_{sektzioa} = 7 \times 45 = 315 [\text{cm}^2]$$

Lorturiko emaitzak hasieran biraketa erradio definitzeko erabilitako adierazpenean ordezkatur:

$$i = \sqrt{\frac{I}{A_{sektzioa}}} = \sqrt{\frac{53156,25}{315}} = 12,99 [\text{cm}]$$

Azkenik, adierazpena baieztatzen dela frogatzea baino ez da gelditzen. Hona hemen:

$$\frac{L_{bermaketa}}{i} < 40 \Rightarrow \frac{33,64(\text{cm})}{12,99(\text{cm})} = 2,58 < 40 \quad \text{Onargarria}$$

Lortutako balioari so eginez, prozedura egokia dela esan daiteke.

· Euler-en metodoa:

Prozedura honetan karga kritikoaren balioa ondorengo adierazpenaren bitartez definitzen da:

$$P_k \cdot (S.K.) = \frac{\pi^2 \cdot E \cdot I_{\min}}{L_p} \quad \text{Non;}$$

P_k : Karga kritikoa

E : Elastikotasun modulua


I_{\min} : Inertzi minimoa

L_p : Gilbordura luzera. Non;

$$L_p = \beta \cdot L_{bermaketa} \quad \text{den}$$

SK : Segurtasun koefizientea

Muturren loturaren araberako gilbordura luzeraren kalkulurako beharrezkoa den β -ren balioak ondorengoak dira:



3.3.54 Irudia

- a) $\beta = 1$ Bi muturretan giltzadurak
- b) $\beta = 2$ Mutur bat aske eta bestea landatua
- c) $\beta = 0,7$ Mutur bat landaturik eta bestea giltzadura
- d) $\beta = 0,5$ Bi muturrak landaturik

Gilbordura luzera zehazteko orduan kontserbadoreak izateko, egoerarik desegokiena aukeratuko da, mutur bat landatuta eta bestea muturra aske dagoeneko artikulazio aukeratuko da. Honela, kasu honetan gilbordura luzera, zurtoinarekin luzeraren bikoitza izango da hariaren zatia kenduta.


$$L_p = k \cdot L_{bermaketa} = 2 \cdot 336,4 = 672,8 [mm]$$

Karga kritikoa kalkulatzeko bi era desberdin daude, Tetmajer-en edota Euler-en prozedurak. Bietan, lehendabizi lerdentasunak zehaztu beharko dira, ondoren adierazpen matematikoetan ordezkatzeko.

$$\lambda = \frac{L_p}{i} = \frac{L_p}{\sqrt{\frac{I}{A}}} = \frac{672,8}{144,3} = 4,66[-]$$

$$\lambda_p = \pi \cdot \sqrt{\frac{E}{\sigma_E}} = \pi \cdot \sqrt{\frac{2,1 \cdot 10^6 \left(\frac{\text{kg}}{\text{cm}^2}\right)}{3770 \left(\frac{\text{kg}}{\text{cm}^2}\right)}} = 74,14[-]$$

Hona hemen Euler-en hiperbolaren adierazpen grafikoa:



3.3.55 Irudia

$\sigma_{ki} = f(\lambda)$ funtzio horretan ondokoa ikusten da, λ -ren balioak zerorantz hurbiltzen direnean Euler-en tentsio kritikoak infiniturako joera duela. Beraz, Euler-en formulak baliagarriak izateko Hooke-n legearekin erlazionatutako hurrengo hipotesia bete behar da:

$$\lambda < \lambda_p \quad \Rightarrow \quad 4,66 = \lambda < \lambda_p = 74,14$$

Emaitzei begirada bat eman ondoren, argi ikusten da metodo hau ezin daitekeela erabili, Euler-en hiperbolaren tartetik at baitago, zeren $\lambda < \lambda_p$ dela, eta ondorioz, $\sigma_{krit.} > \sigma_P$.

Hala ere, Tetmajer-en adierazpena aztertuz karga kritikoaren balioa zehaztearen saiaketa egingo da, hots, kirtanak jasan dezakeen indar handiena lortuko da, hauxe zilindroak garatu beharrekoa baino handiagoa izan beharko delarik, bermaketa gilbordu ez daiten.

$$P_{krit} = \frac{A(315 - \lambda)}{S.K}$$

Non; P_k : Karga kritikoa.

A: Bermaketaren azalera

λ : Bermaketaren lasaitasuna.

SK :Segurtasun koefizientea.

Lortutako balioak karga kritikoaren adierazpenean ordezkatzuz:

$$P_{krit} = \frac{315 \cdot (315 - 4,66)}{S.K} = \frac{315 \cdot (315 - 29,59)}{3,5} = 27930,6(N) = 273999,186(kg)$$

Jarraian, hurrengo baldintza egiaztatzen den aztertuko da:

$$F_{zilindro} < P_{kritikoa}$$

$$85000(kg) < 273999,186(kg) \quad \text{Onargarria}$$

Lortutako balioari so eginez, diseinua egokia dela frogatuta geratzen da.

· ω koefizientearen metodoa:

Konpresiozko karga baten pean dagoen pieza baten gilbordura fenomeno aztertzeko dagoen metodoa da, ondoren, honetan oinarrituta dagoen C.T.E. (Código Técnico de Edificación).

Lerdentasunaren edozein baliotarako da aplikagarria eta konpresiozko tentsio onargarriaren balioa gutxituko duen egokitzapen gilbordura koefiziente bat sartzean datza, horrela aztertzen ari deneko fenomenora egokituz.

Aipatutako gilbordura koefizientea “ ω ” letrarekin adierazten da eta bere adierazpen matematikoa ondokoa da:

$$\omega = \frac{\sigma_{on\ arg.}^{konpr.}}{\sigma_{on\ arg.}^{gilbor.}} \quad \text{Non; } \omega : \text{Omega koefizientea}$$

$\sigma_{on\ arg.}^{konpr}$: Konpresio tentsio onargarria

$\sigma_{on\ arg.}^{gilbor}$: Gilbordura tentsio onargarria

“ ω ” koefiziente honen balioa unitatea baino handiagoa da, segurtasun edo egokitzapen koefiziente gisa lan egiten baitu.

Koefiziente hau materialaren eta lerdentasunaren araberakoa da, eta honen balioak taulaturik daude. Materiala A-37, A-42 eta A-52 izan daitezke. Lerdentasuna, aldiz, kalkulatu egin behar da, bere balioa aurreko atalean lortutakoa:

· Lerdentasuna $\rightarrow \lambda = \frac{L_p}{i_{min}} = \frac{672,8}{14,43} = 46,63[-] \approx 47[-]$

· Materiala \rightarrow A-52

Jadanik, hurrengo taulatik “ ω ” koefizientearen balioa lortuko da:

Acero	λ	0	1	2	3	4	5	6	7	8	9
	20	1,02	1,02	1,03	1,03	1,03	1,04	1,04	1,04	1,05	1,05
	30	1,05	1,06	1,06	1,07	1,07	1,08	1,08	1,09	1,10	1,10
	40	1,11	1,12	1,13	1,13	1,14	1,15	1,16	1,17	1,18	1,19
	50	1,20	1,22	1,23	1,24	1,25	1,27	1,28	1,30	1,31	1,33
	60	1,35	1,37	1,39	1,41	1,43	1,45	1,47	1,49	1,51	1,54
	70	1,56	1,59	1,61	1,64	1,66	1,69	1,72	1,75	1,78	1,81
	80	1,84	1,87	1,90	1,94	1,97	2,01	2,04	2,08	2,11	2,15
	90	2,18	2,22	2,26	2,30	2,34	2,38	2,42	2,46	2,50	2,54
	100	2,59	2,63	2,67	2,72	2,76	2,81	2,85	2,90	2,95	2,99
	A52	110	3,04	3,09	3,14	3,19	3,24	3,29	3,34	3,39	3,44
120		3,55	3,60	3,65	3,71	3,76	3,82	3,87	3,93	3,98	4,04
130		4,10	4,16	4,22	4,27	4,33	4,39	4,45	4,52	4,58	4,64
140		4,70	4,76	4,83	4,89	4,95	5,02	5,08	5,15	5,22	5,28
150		5,35	5,42	5,48	5,55	5,62	5,69	5,76	5,83	5,90	5,97
	160	6,04	6,12	6,19	6,26	6,34	6,41	6,48	6,56	6,63	6,71
	170	6,79	6,86	6,94	7,02	7,09	7,17	7,25	7,33	7,41	7,49
	180	7,57	7,65	7,73	7,82	7,90	7,98	8,07	8,15	8,24	8,32
	190	8,40	8,49	8,58	8,66	8,75	8,84	8,93	9,02	9,10	9,19
	200	9,28	9,37	9,47	9,56	9,65	9,74	9,83	9,92	10,02	10,11
	210	10,21	10,30	10,40	10,49	10,59	10,69	10,78	10,88	10,98	11,08
	220	11,18	11,27	11,38	11,48	11,57	11,68	11,78	11,88	11,98	12,09
	230	12,19	12,29	12,40	12,50	12,61	12,72	12,82	12,93	13,03	13,14
	240	13,25	13,36	13,47	13,58	13,69	13,80	13,91	14,02	14,13	14,25
	250	14,36									

3.3.3 Taula

A-52-ko materiala aukeratzen da: $\lambda = 47 \rightarrow \omega = 1,17$

Jarraian, konpresiozko tentsio onargarria kalkulatu da, horretarako erabilitako segurtasun koefizientea $SK = 4$ balioarekin zehaztu delarik. Hona hemen:

$$\sigma_{on\ arg.}^{konpr.} = \frac{\sigma_{on\ arg.}}{S.K.} \quad \text{Non; } \sigma_{on\ arg.}^{konpr.} : \text{Konpresio tentsio onargarria.}$$

$\sigma_{on\ arg.}$: Materialaren tentsio onargarria.

SK : Segurtasun koefizientea.

Beraz:

$$\sigma_{on\ arg.}^{konpr.} = \frac{3770 \left(\frac{kg}{cm^2} \right)}{4} = 942,5 \left(\frac{kg}{cm^2} \right)$$

Ondoren, gilbordura tentsio onargarria aztertuko da adierazpen honen bitartez:

$$\sigma_{on\ arg.}^{gilb.} = \frac{F_{zilindro}}{A_{sezioa}} = \frac{F_{zilindro}}{b \cdot h} \quad \text{Non; } \sigma_{on\ arg.}^{gilb.} : \text{Gilbordura tentsio onargarria}$$

$F_{zilindro}$: Zilindroak garatutako indarra

A_{sezioa} : Bermaketaren azalera

Beraz, datu guztiak ordezkaturik:

$$\sigma_{on\ arg.}^{gilb.} = \frac{F_{zilindro}}{b \cdot h} = \frac{40.000(kg)}{45 \cdot 70(cm^2)} = 12,7 \left(\frac{kg}{cm^2} \right)$$

Dagoeneko “ ω ” koefizientearen eta konpresio tentsio onargarriaren balioak definituta daudelarik, hauek hasierako adierazpenean ordezkaturik gilbordura fenomenoaren agertzeko arriskua dagoen aztertuko da.

$$\omega = \frac{\sigma_{on\ arg.}^{konpr.}}{\sigma_{on\ arg.}^{gilbor.}} \Rightarrow \sigma_{on\ arg.}^{gilbor.} \cdot \omega \leq \sigma_{on\ arg.}^{konpr.} \Rightarrow 12,7 \left(\frac{kg}{cm^2} \right) \cdot 1,30 = 16,507 \left(\frac{kg}{cm^2} \right) \leq 942,5 \left(\frac{kg}{cm^2} \right)$$

Onargarria

Ikusten da elementu honetan emango den tentsioak txikiegiak direla, kontutan izanda lotura pieza hauek puntzoi eroalearen material berberekoak direla: ST 275 JR

Apurketa tentsioa: $\sigma_R = 370 \text{ Mpa}$

Fluentzizko tentsioa: $\sigma_{flu} = 300 \text{ Mpa}$

Azkenik lotura piezaren eta puntzoi eroalearen arteko lotura kalkulatu da. Lotura hau soldaduraren bitartez izango da. Kalkuluak Gere, J. eta Timoshenko, S.-en "Mecánica de materiales" eta Spotts, M. eta Shoup, T.-en "Elementos de máquinas" liburuetan agertzen diren adierazpenak jarraituz egin dira.:

$$\tau = \frac{F}{A} \quad ; \quad A = n \times 0,707 \times l \times h \quad ; \quad \tau = \frac{0,5 \times \sigma_{flu}}{S.K.}$$

Non; τ = Soldaduran sortuko den tentsio ebakitzaila kg/mm^2 -tan
 F = Pletina bik jasan beharko duten indarra kg -tan = $2800/2=1400 \text{ kg}$
 A = Soldaduraren azalera mm^2 -tan
 n = Soldadura kopurua = 4
 l = Soldaduraren luzera mm -tan = 60 mm
 h = Soldaduraren altuera mm -tan
 σ_{flu} = Soldaduraren fluentzia tentsioa kg/mm^2 -tan = $46,89 \text{ kg/mm}^2$
 $S.K.$ = Soldadurarako segurtasun koefizientea = 6

Beraz,

$$A = 4 \times 0,707 \times 60 \times h = 169,68 \times h$$

$$\tau = \frac{1400}{169,68 \times h} = 8,25 \times h$$


$$\tau = \frac{0,5 \times 46,89}{6} = 8,25 \times h \Rightarrow h = 0,47 \text{ mm}$$

Azkenean, segurtasun kontua dela eta $h=10 \text{ mm}$ hartuko dugu.

3.3.3. Sinkronizazio sistemaren kalkulua

Sinkronizazio sistema ondorengo osagaien osatuta dago: motore erreduktorea, torloju amaigabeak, koroa eta bihurtura ardatza. Motorreduktoreak transmisio arrabolaren bitartez lotuta dauden bi torloju amaigabeen eta haiei lotuta dauden koroen biraketa sortzen du. Koroen biraketak haiei lotuta eta zilindroaren barnean dauden ardatzen biraketa eragiten du, modu honetan topearen igoera eta jaitsiera lortzen delarik. Topea torloju baten moduan ardatzari dago lotuta eta honen mugimendu bertikala lortzeko alboetan dauden buloien bitartez topearen biraketa ekiditen da.

Arrabolak tolesgailu hidraulikoak eragiten dituen 80 Tn-ko indarra jasango du bere bi alboetan, bastidorearen bermatze guneetan hain zuzen ere. Gainera arrabola puntzoi eroaleak soldatuta dituen berma puntuetan lotuta geldituko da honek dituen zirien bitartez. Beronen kalkulurako ASME kodea eta Gere, J. eta Timoshenko, S.-en “Mecánica de materiales” liburuan agertzen diren adierazpenak erabiliko dira.



3.3.57 Irudia

Hasierako datuak:

Zilindroen ibilbidea = 135 mm

Arrabola eta ziri-ardatzaren arteko distantzia: h = 200 mm

Puntzoi eroalearen berma puntuetan eragiten den indarra: F = 40000 kg

Arrabolaren berma puntuen arteko distantzia: L = 4110 mm

Puntzoi eroalearen berma puntuen arteko distantzia: l = 3481 mm

Arrabolaren ustezko pisua: W = 205 kg

3.3.3.1. Ziri ardatzaren kalkulua

Hasierako datuak:


Materiala: F-1140

Apurketa tentsioa: $\sigma_R = 63 \text{ kg/mm}^2$

Fluentzia tentsioa: $\sigma_{flu} = 40 \text{ kg/mm}^2$

Tentsioa onargarria: $\sigma_{onar} = 30 \text{ kg/mm}^2$

Ziriaren eragiten den indarra: F = 40.000 kg



3.3.58 Irudia

Elementu honen kalkulurako bere zeharkako azalera sortuko diren tentsio ebakitzailak kontutan izan dira.

$$\tau = \frac{F}{2 \times A} \left(\frac{\text{kg}}{\text{cm}^2} \right)$$

Indarra zati 2 egin da tentsio ebakitzailak ziriaren bi alboetara banatuko direlako.

Non;

τ = Sortutako tentsio ebakitzaila kg/cm^2 -tan

F = Eragingo den indarra kg -tan = 40.000 kg

A = Ziri ardatzaren zeharkako azalera

$$\tau = \frac{F}{2 \times A} \Rightarrow d = \sqrt{\frac{2 \times F}{\tau \times \pi}} = \sqrt{\frac{2 \times 40000}{\frac{3150}{2} \times \pi}} = 4,021 \text{ cm} = 40,21 \text{ mm}$$

Segurtasun handiagoa izateko 50mm-takoa hartuko da..

- Landapen indarraren kalkulua:

$$\sigma = \frac{F}{A}$$

Non; σ = Sortutako tentsio axialak kg/mm²-tan

F = Eragingo den indarra kg-tan = 40.000 kg

A = Bermatzearen azalera mm²-tan

$$\sigma = \frac{F}{A} = \frac{40.000}{t \times s} = \frac{40.000}{70 \times 120} = 4,762 \text{ kg/mm}^2$$

- Momentu makurtzaileak sortuko dituen tentsio axialak:

$$\sigma = \frac{M \times y}{I_{LN}}$$

Non; σ = Makurduragatik sortuko diren tentsio axialak kg/mm²-tan

M = Momentu makurtzailea kg·mm-tan = 40.000 x 60 kg·mm

y = Ertzetik lerro neutroraino dagoen distantzia mm-tan = 50 mm

I_{LN} = Inertzi momentua lerro neutroarekiko mm⁴-tan

$$\sigma = \frac{M \times y}{I_{LN}} = \frac{40.000 \times 60 \times 50}{\frac{70 \times 100^3}{12}} = 20,571 \text{ kg/mm}^2$$

- Makurduraren ondorioz sortutako tentsio ebakitzzaileak:

$$\tau = \frac{V \times Q}{b \times I_{LN}}$$

Non; ζ = Tentsio ebakitzzailea kg/mm²-tan

V = Indar ebakitzzailea kg-tan = 40.000 kg

Q = Momentu estatikoa mm³-tan

b = Ebakiduraren zabalera mm-tan

I_{LN} = Inertzi momentua lerro neutroarekiko mm⁴-tan

Tentsio ebakitzaila hau, maximoa izango da sekzioaren erdian:

$$\tau_{\max} = \frac{V \times Q}{b \times I_{LN}} = \frac{V \times \frac{b \times h^2}{8}}{b \times \frac{b \times h^3}{12}} = \frac{3 \times V}{2 \times A} = \frac{3 \times 40.000}{2 \times 70 \times 100} = 8,57 \text{ kg/mm}^2$$

“Mohr”-en zirkuluaren bitartez tentsio maximo eta minimoak kalkulatu dira:

$$\sigma_{1,2} = \frac{\sigma_x + \sigma_y}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{\sigma_x - \sigma_y}{2}\right)^2 + \tau_{xy}^2} = \frac{20,571 + 4,762}{2} \pm \sqrt{\left(\frac{20,571 - 4,762}{2}\right)^2 + 8,57^2}$$

$$\sigma_1 = 24,325 \text{ kg/mm}^2$$

$$\sigma_2 = 1,007 \text{ kg/mm}^2$$

Azkenik, apurketa arriskurik dagoen jakiteko “Mises-Hencky”-ren teorema aplikatu behar da.

$$\sigma' = \sqrt{\frac{\sigma_1^2 + \sigma_2^2 - (\sigma_1 \times \sigma_2)}{2}} = \sqrt{\frac{20,325^2 + (1,007)^2 - (20,325 \times 1,007)}{2}} = 14,03 \text{ kg/mm}^2$$

$$\sigma' = \frac{\sigma_{flu}}{S.K.} \Rightarrow S.K. = \frac{\sigma_{flu}}{\sigma'} = \frac{40}{14,03} = 2,85$$

Segurtasun koefizientea bat baiño handiago denez ez dago apurketa arriskurik, beraz suposatutako neurriak egokiak dira.

3.3.3.3. Bermaketaren soldaduraren kalkulua

Bermaketaren soldadura kalkulatzeko indarra aplikatuta dagoen puntuan tentsio ebakitzailak eta momentu makurtzailearen bitartez tentsio axialak sortuko direla kontutan izan behar da. Tentsio ebakitzailak, tentsio ebakitzaila zuzenak deituko zaie, τ_d , eta tentsio axialei berriz tentsio ebakitzaila ez-zuzenak, τ_i . Hauen kalkulurako Spotts, M. eta Shoup, T.-en "Elementos de máquinas" liburuan agertzen diren adierazpenak erabiliko dira.

$$\tau_T = \sqrt{\tau_d^2 + \tau_i^2} \quad ; \quad \tau_d = \frac{V}{A} = \frac{V}{2 \times 0,707 \times h \times c} \quad ; \quad \tau_i = \frac{M \times y}{I_{LN}} = \frac{F \times d \times y}{2 \times \left(\frac{h \times c^3}{12} + (c \times h) \times l^2 \right)}$$

- Non;
- V = Sortutako indar ebakitzaila kg-tan = 40.000 kg
 - h = Soldaduraren altuera mm-tan
 - c = Soldaduraren luzera mm-tan = 251 mm
 - F = Bermatzean aplikatutako indarra kg-tan = 40.000 kg
 - d = Indarraren aplikazio puntutik soldaduraraino dagoen distantzia mm-tan = 180 mm
 - y = Soldaduren lerro neutrotik hertzera dagoen distantzia mm-tan
 - l = Soldaduren lerro neutrotik haien ardatzera dagoen distantzia mm-tan

Balioak ordezkatzuz:

$$\tau_d = \frac{40.000}{2 \times 0,707 \times h \times 251} = \frac{112,7 \text{ kg}}{h} / \text{mm}^2$$

$$\tau_i = \frac{40000 \times 180 \times \left(\frac{70}{2} + h \right)}{2 \left(\frac{h \times 251^3}{12} + (251 \times h) \times \left(\frac{70 + h}{2} \right)^2 \right)} = \frac{252 \times 10^6 + 7,2 \times 10^6 h}{2,636 \times 10^6 h + 502 h \times \left(\frac{70 + h}{2} \right)^2}$$

Kalkuluak errazteko $h = 10 \text{ mm}$ kontsideratuko da.

$$\tau_d = 11,27 \text{ kg} / \text{mm}^2 \quad ; \quad \tau_i = 9,42 \text{ kg} / \text{mm}^2 \quad ; \quad \tau_T = \sqrt{11,27^2 + 9,42^2} = 14,69 \text{ kg} / \text{mm}^2$$

$$\zeta = \frac{0,5 \times \sigma_{flu}}{S.K.}$$

Soldaduraren fluentzizko tentsioa: $\sigma_{flu} : 70,23 \text{ kg/mm}^2$

$$S.K. = \frac{0,5 \times 70,23}{14,69} = 2,39$$

Segurtasunagatik $h = 15 \text{ mm}$ hartuko da honela S.K. handiago bat lortuko dugu soldaduraren kalkuluaren bermapena ziurtatuz.

Kalkuluak hurrengoak izango dira $h = 15 \text{ mm}$ kontsideratuz:

$$\tau_d = 7,51 \frac{\text{kg}}{\text{mm}^2} \quad ; \quad \tau_i = 6,78 \frac{\text{kg}}{\text{mm}^2} \quad ; \quad \tau_T = \sqrt{7,51^2 + 6,78^2} = 10,114 \frac{\text{kg}}{\text{mm}^2}$$

$$\zeta = \frac{0,5 \times \sigma_{flu}}{S.K.}$$

Soldaduraren fluentzizko tentsioa: $\sigma_{flu} : 70,23 \text{ kg/mm}^2$

$$S.K. = \frac{0,5 \times 70,23}{10,114} = 3,5$$

Segurtasun koefiziente hau nahiko handiaenez soldadura bermatura geratuko da.

3.3.3.4 Bihurdura arrabolaren kalkulua

Arrabolaren kalkulurako ASME kodea erabiliko da. Kode honek arrabolan egon daitezken karga aldaketak edo biraketengatik agertu daiteken nekea aurratsen du koefiziente batzuen bitartez.

$$\tau_{\max} = \frac{0,5 \times \sigma_{flu}}{S.K.} = \sqrt{\left(\frac{C_m \times \sigma}{2}\right)^2 + (C_t \times \tau)^2}$$

Ardatz zirkularra zurruna denez:

$$\tau_{\max} = \frac{16}{\pi \times d^3} \times \sqrt{(C_m \times M)^2 + (C_t \times T)^2}$$

Bihurdura arrabolaren diametroa lortu nahi denez:

$$d = \sqrt[3]{\frac{16 \times S.K.}{0,5 \times \sigma_{flu} \times \pi} \times \sqrt{(C_m \times M)^2 + (C_t \times T)^2}}$$

Non; d = Arrabolaren diametroa mm-tan

σ_{flu} = Materialaren fluentzia tentsioa kg/mm²-tan = 80 kg/mm²

C_m eta C_t = Kolpeak eta nekea kontutan hartzen dituzten koefizienteak.

ASME KODEA-ren tauletan begiratzuz (ardatz birakorrentzako koefizienteak)

M = Momentu makurtzaile maximoa.

T = Momentu bihurtzaile maximoa

Diseinu datuak:

F-1250 altzairua

$$\sigma_R = 95 \text{ kg/mm}^2$$

$$\sigma_{flu} = 80 \text{ kg/mm}^2$$

$$A(\%) = 6\%$$

$$S.K. = 1,5$$

$$C_m = 1,5$$

$$C_t = 1$$

Tauletan begiratuta erreakzioen eta momentu makurtzaileen balioak lortu dira:

$$a = b = 346 \text{ mm (landapenetik indarrera arteko distantzia)}$$

$$L = 4633 \text{ mm (luzera osoa)}$$


$$R_a = 40.000 \text{ kg}$$

$$R_b = 40.000 \text{ kg}$$

$$M_a = \frac{F_a \times (L - a)}{L} = \frac{40.000 \times (4633 - 346)}{4633} = 37.012,73 \text{ kg}\cdot\text{m}$$

$$M_b = \frac{F_b \times (L - b)}{L} = \frac{40.000 \times (4633 - 346)}{4633} = 37.012,73 \text{ kg}\cdot\text{m}$$

Momentu makurtzaile maximoa:



3.3.60 Irudia

Momentu bihurtzaile maximoa hurrengo izango da:

$$M_T = \frac{F}{2} \times l$$

Non; F = indar bihurtzailea: F = 40.000 kg.

L = euskarri eta ardatzarena arteko distantzia. l = 20 cm

$$M_T = \frac{F}{2} \times l = \frac{40.000}{2} \times 20 = 400.000 \text{ kg/cm}^2$$

Argi ikusten dena zera da, momentu bihurtzaile maximoak beso bikote bakoitzean ematen direla, eta ASME kodea gune kritikoenean aplikatu behar denez:

$$d = \sqrt[3]{\frac{16 \times S.K.}{0.5 \times \sigma_{flu} \times \pi} \times \sqrt{(C_m \times M)^2 + (C_t \times T)^2}}$$

$$d = \sqrt[3]{\frac{16 \times 1,5}{0,5 \times 8000 \times \pi} \times \sqrt{(1,5 \times 49,52 \times 10^3)^2 + (1 \times 400 \times 10^3)^2}} = 9,19 \text{ cm} = 91,9 \text{ mm}$$

Segurtasun koefizientea S.K. = 1,5 izan denez, arriskurik ez egoteko d = 120 mm hartuko da.


Ardatzaren diametroa izanda jarraian momentu bihurtzaile maximoa jasaten duen begiratu behar da, jakinda maximoa beso bikote bakoitzean ematen delarik.

$$r = \sqrt[3]{\frac{2 \times T}{\pi \times \tau}} = \sqrt[3]{\frac{2 \times 400.000}{\pi \times 4000}} = 3,993 \text{ cm} \Rightarrow d_{\min} = 7,96 \text{ mm} = 79,6 \text{ mm}$$

Frogatzen da bihurduraren aurrean ez dagoela arriskurik. Aurrerago lortu dugun d=120 mm-koa baita.

3.3.3.5. Bihurdura arrabolaren besoen kalkulua

Porta-puntzoitik bihurtura arrabolara indarra transmititzeko besoak kalkulatu behar dira. Pieza honen kalkulua egiterakoan trakziozko eta konpresiozko tentsioak eta indarrak sortzen duen momentu makurtzaileagatik bihurtura arrabolaren kontaktu gunean sortzen diren tentsio axialak kontutan izango dira.



3.3.61 Irudia

Kalkulurako Gere, J. eta Timoshenko, S.-en "Mecánica de materiales" liburuan agertzen diren adierazpenak erabiliko dira.

- Datuak:
- Berma puntuen materiala: DIN ST 275 JR
 - Apurketa tentsioa: $\sigma_R = 370 \text{ MPa}$
 - Fluentzia tentsioa: $\sigma_{flu} = 300 \text{ Mpa}$
 - F : besoetan aplikatuta dagoen indarra: 42500 kg.
 - b : besoen euskarrien arteko distantzia: 200 mm
 - D : beso eta bihurtura arrabolaren loturaren diametroa: 120 mm
 - d : ziriaren zuloko diametroa: 50 mm
 - e : piezaren lodiera: 55 mm
 - D_{kan} : beso eta ardatzaren lotze guneko kanpo diametroa: 220 mm
 - D_{kan} : beso eta ziriaren lotura gunearen kanpo diametroa: 110 mm

Ziriarekiko kontaktu guneko tentsioak aztertuko dira, ardatzarekiko kontaktu gunekoak baino handiagoak direlako, azalera txikiagoa izateagatik eta beraz, gune honek apurketa arrisku handiagoa duelako.

Trakziozko tentsioak:

$$\sigma_{\text{trakzio}} = \frac{F}{A}$$

Non; σ_{trakzio} = Sortuko diren trakziozko tentsioak kg/cm²-tan

F = Aplikatutako indarra kg-tan = 20.000 kg

A = Zeharkako azalera trakzio gunean cm²-tan

$$\sigma_{\text{trakzio}} = \frac{F}{A} = \frac{F}{2 \times \left(\left(\frac{D_{kan} - d}{2} \right) \times e \right)} = \frac{20.000}{2 \times (3 \times 5,5)} = 606,06 \text{ kg/cm}^2$$

Konpresiozko tentsioak:

$$\sigma_{\text{konpresio}} = \frac{F}{A}$$

Non; $\sigma_{\text{konpresio}}$ = Sortuko diren konpresiozko tentsioak kg/cm²-tan

F = Aplikatutako indarra kg-tan = 20.000 kg

A = Zeharkako azalera konpresio gunean cm²-tan

$$\tau = \frac{F}{A} = \frac{F}{d \times e} = \frac{20.000}{5 \times 5,5} = 727,27 \text{ kg/cm}^2$$

Apurketa arriskurik ez dagoela frogatzen da.

Ondoren makurduraren ondorioz agertzen diren tentsio axialak aztertuko dira:

$$\sigma = \frac{M \times y}{I_{LN}}$$

Non; σ = Sortutako tentsio axialak kg/cm²-tan

M = Sortutako momentu makurtzailea kg · cm-tan


y = Zeharkako azaleraren LN-tik ertzera dagoen distantzia = 110 cm

I_{LN} = Zeharkako azaleraren inerti momentua cm⁴-tan


$$\sigma = \frac{M \times y}{I_{LN}} = \frac{F \times b \times y}{I_{LN}} = \frac{42500 \times 200 \times 110}{40,883 \times 10^6} = 22,87 \text{ kg/cm}^2$$

3.3.3.6. Bihurdura arrabola eta bere besoen arteko soldadura

Kasu honetan bi motatako tentsio ebakitzzaileak sortuko dira soldaduran. Alde batetik indarrak sortzen dituenak, τ_d , eta beste alde batetik momentu bihurtzaileak sortzen dituenak, τ_t . Soldaduren kalkulurako Spotts, M. eta Shoup, T.-en "Elementos de máquinas" liburuaren irizpidea jarraituko da.



3.3.62 Irudia



3.3.63 Irudia

$$\tau_d = \frac{P}{A} \quad ; \quad \tau_t = \frac{T \times r}{I_p} \quad ; \quad \tau = \tau_d + \tau_t = \frac{0.5 \times \sigma_{flu}}{S.K.}$$

- Non;
- τ = Soldaduraren tentsio ebakitzzaileak kg/mm²-tan
 - τ_d = Soldaduraren tentsio ebakitzzaile zuzena kg/mm²-tan
 - τ_t = Soldaduraren bihurtura tentsioa kg/mm²-tan
 - P = Soldadurarekiko indarra kg-tan (beso bakoitzean) = 40.000kg
 - A = Soldadura kordoen azalera totala mm²-tan (beso bakoitzean)
 - T = Sortutako momentu bihurtzailea kg · mm-tan
 - r = Soldaduraren grabitate zentrotik urrunen dagoen puntu-arte dagoen distantzia mm-tan = 120/2 = 60 mm
 - I_p = Besoko soldadura bakoitzaren momentu polarra mm⁴-tan
 - I_{p-totala} = Besoko soldaduren momentu polar totala mm⁴-tan

Horrela:

$$A = 2 \times (0,707 \times h \times 2 \times \pi \times r) = 533,06 \times h$$

$$T = P \times b = 20.000 \times 200 = 4 \times 10^6 \text{ kg} \times \text{mm}$$

Non b = Indarraren eta soldaduraren grabitate zentroaren arteko distantzia.

$$r = \frac{120}{2} = 60 \text{ mm}$$

$$I_p = 2 \times \pi \times r^3 \times 0,707 \times h = 2 \times \pi \times 60^3 \times 0,707 \times h = 959517,8 \times h$$

$$I_{p_{totala}} = I_p \times 2 = 1919035,56 \times h$$

Formulak aplikatuz:

$$\tau_d = \frac{P}{A} = \frac{20.000}{533,06 \times h} = \frac{37,52}{h}$$

$$\tau_t = \frac{T \times r}{I_p} = \frac{4 \times 10^6 \times 60}{1919035,56 \times h} = \frac{125,063}{h}$$

$$\tau = \tau_d + \tau_t = \frac{37,52}{h} + \frac{125,063}{h} = \frac{162,583}{h}$$

$$\tau = \frac{0,5 \times \sigma_{flu}}{S.K.} \Rightarrow \frac{162,583}{h} = \frac{0,5 \times 70,23}{2} \Rightarrow h = 9,26 \text{ mm}$$

Azkenik seguritateagatik soldaduraren lodiera 35 mm-takoa izango dela erabaki da.

3.3.4. Transmisio sistema**3.3.4.1. Torloju amaigabearen eta koroaren kalkulua**

Piezaren kalkulurako Spotts, M. eta Shoup, T.-en “Elementos de maquinas” liburuan agertzen diren adierazpenak erabiliko dira.



3.3.64 Irudia

Hasierako datuak:

Topearen ibiltartea: 135 mm

μ_s = Hortzen arteko marruskadura koefizientea = 0,15

i = Transmisioaren erlazioa = 6

l = Ardatzaren pausua mm-tan = 12 mm

r_a = Ardatzaren hariaren erradioaren mm-tan = 40 mm

n_a = Ardatzaren abiadura angeluarra bira minututan = 23 bira/min

n_t = Amaiera gabeko torlojuaren abiadura angeluarra = $n_a \times i$ = 138 bira/min

d = Amaiera gabeko torlojuaren eta koroaren arteko distantzia = 49,41 mm


z_p = Amaiera gabeko torlojuaren sarrerak = 4

z_r = Koroaren hortz kopurua = 24

m = Topearen masa kg-tan = 8,23 kg

α = Presio angelua (normalizatuta dago) = 20°

m_n = Modulu normala mm-tan = 2,5 mm



3.3.65 Irudia

